



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko abuztuaren 14a

67. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Osasun Departamentuak 2008ko eta 2009ko ekitaldietan zenbait entitate pribaturekin eginiko itun eta hitzarmei buruzko fiskalizazio-txostena, Comptos Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Osasun Departamentuak 2008ko eta 2009ko ekitaldietan zenbait entitate pribaturekin eginiko itun eta hitzarmei buruzko fiskalizazio-txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 2an eginiko bilkuran, erabaki zuen agintzea argitara dadila Comptos Ganberak egindako fiskalizazio txostena, Osasun Departamentuak 2008ko eta 2009ko ekitaldietan zenbait entitate pribaturekin eginiko itun eta hitzarmei buruzkoa.

Iruñean, 2011ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Osasun Departamentuak 2008ko eta 2009ko ekitaldietan zenbait entitate pribaturekin eginiko itun eta hitzarmei buruzko fiskalizazio-txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I Sarrera (2. or.).
- II. Fiskalizazioaren helburuak, norainokoa eta mugak (3. or.).
- III. Osasun itunak (4. or.).
- IV. Ondorioak (7. or.).
- V. Gomendioak (12. or.).
- VI. Osasun itunen kudeaketari buruzko ebaluazioa (12. or.).
 - VI.1 Osasun itunen eta jarduera itunduaren gastua (12. or.).
 - VI.2. Itunen justifikazioa eta helburuak (15. or.).
 - VI.3. Itundutako tarifak (16. or.).
 - VI.4. Itundutako jardueraren fakturazioa (17. or.).
- VII. Zenbait osasun prestazioren kostua O-NOZen (17. or.).

VII.1. Kostuak kalkulatzeko metodologia orokorra (17. or.).

VII.2 Erresonantzia magnetikoa (18. or.).

VII.3 Hemodialisi-saioa (20. or.).

VII.4 Traumatologiako kontsultak (22. or.).

VII.5 Belauneko protesia (23. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (25. or.).

Osasun departamentuaren alegazioak (25. or.).

Nafarroako Unibertsitate Klinikaren alegazioak (28. or.).

San Miguel Klinikaren alegazioak (36. or.).

Nafarroako Diagnostiko Erradiologikoko Zentroa, S.L.-ren alegazioak (44. or.).

Aurkeztutako alegazioei Comptos Ganberak emaniko erantzuna (46. or.).

I. SARRERA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eskatu zuen entitate pribatuekiko itun eta hitzarmenatarako erabilitako funts publikoak fiskalizatzeko. 2010eko otsailaren 1ean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak erabaki zuen eskari hori Comptos Ganberari igortzea.

Azterlan hori Comptos Ganberak 2010. urterako onartu zuen fiskalizazioko programan sartu zen, eta auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak egin zuen, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboekin lankidetzan.

Landa-lana 2010eko urrian hasi zen, eta 2011ko maiatzean amaitu zen.

Eskerrak ematen dizkiegu Osasun Departamentuko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko (O-NOZ) eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Funtzio Publikoaren

Zuzendaritza Nagusiko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Fiskalizazioaren helburuak hauexek dira:

a) 2008. eta 2009. urteetan itundutako gastua eta jarduera aztertzea.

b) Entitate pribatuekiko osasun itunetara bideratutako funts publikoen kudeaketa aztertzea.

c) 2009an O-NOZen osasun prestazio batzuek izan duten kostua kalkulatzeko, eta hura osasun zentro itunduen tarifekin alderatzea.

Fiskalizazioaren norainokoak 2008an eta 2009an indarrean egon diren itunak hartzen ditu, honako entitate pribatu hauekin:

- Unibertsitate Klinikak (gaur egun Nafarroako Unibertsitatea Klinikak)

- San Miguel Klinikak

- Quirón, S.A. Ospitale Taldea

- Medicis Zentroa, irudiaren bidezko diagnosi-rako.

- Alliance Medical Diagnósticos S.L.

Itun horiek 28.658.540 euroko gastua ekarri zuten 2009an.

Aipatutako entitateekin izenpetutako itunei dagokienez, Unibertsitate Klinikarekin sinatutakoa baizik ez dugu jaso, eta itun hori ez dugu fiskalizatu, zeren eta ganbera honek, 2009ko abuztuaren 5ean, fiskalizazio txosten bat egin baitzuen "Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabil-tzaile-talde jakin batzuei Nafarroako Unibertsitate-ak osasun zerbitzua emateko kontratuari buruz".

Multzo horretan sartzen dira Unibertsitate Klinikak jardunean ari diren langileak eta erretirodunak, bai eta haien senideak ere.

Txosten horretako gomendioetako bat zen O-NOZek, kontratua amaitu baino lehen, eta haren emaitzak, kostua eta bestelako inguruabar objektiboak kontuan izanda, azter zedila arrazoizkoa ote zen pertsonen multzo horren osasun prestazioa 2012tik kanporatuta egotea. Prestazio horrek 5 milioi euroko gastua ekarri zuen 2009an.

Honakoak dira kostua kalkulatu den osasun prestazioak:

- Proba diagnostikoak: orkatilako eta belauneko erresonantzia magnetikoa, kontrastearekin eta kontrasterik gabe.

- Tratamendu berezi anbulatorioak: hemodialisi saioa

- Kontsultak: traumatologiako kontsulta.

- Prozesu kirurgikoak: belauneko protesia jartzeko ebakuntza.

Kostuari buruzko kalkulua laguntza horiek ematen diren O-NOZeko zentro guztietan egin da.

Aztertutako osasun prozeduren hautapen irizpide nagusiak jardueraren bolumena eta 2009an egindako gastua izan ziren, bai eta haien zentro guztietan ematea ere, hala itunduetan nola publikoetan.

Ebaluatu ditugun osasun laguntzen ituntzeak berarekin ekarri zuen 4.737.209 euroko gastua egitea, hain zuzen ere 2009an fiskalizatutako itun guztien ehuneko 16,5.

Hurrengo taulan erakusten da zein den ebaluatutako prestazioen gastua, eta horietako bakoitzak zenbat egiten duen osasun laguntzaren modalitate bakoitzean.

Osasun-laguntza	2009an itundutako gastua.
Diagnosi-probak, guztira,	4.049.423
Erresonantzia magnetikoa	2.438.433
Proben guztizkoan, erresonantzia magnetikoen egiten duten ehunekoak.	% 60
Tratamendu anbulatorioak, guztira	2.432.637
Hemodialisia	1.344.965
Tratamenduen guztizkoan, hemodialisiak egiten duen ehunekoak	% 55
Kontsultak, guztira	1.351.871
Traumatologiako kontsultak	298.395
Kontsulten guztizkoan, traumatologiako kontsul- tek egiten duten ehunekoak	% 22
Prozesu kirurgikoak, guztira	7.047.725
Belauneko protesiak jartzeko ebakuntza	655.416
Ebakuntzen guztizkoan, belauneko protesiak jartzeko ebakuntzak egiten duen ehunekoak	% 9

Aurreko osasun prestazioak ebaluatzeko, O-NOZeko kudeatzaileen eta langileen laguntza behar izan da.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onartu eta Comptos Ganberak bere Fiskalizazio Eskuliburuan landutako fiskalizazio-printzipio eta -arauei jarraituz egin da azterlan hau.

Honakoak izan dira lanaren norainokoaren mugak:

– Kontabilitate analitikorik ez egotea osasun prozesu guztien kostu unitarioa zuzenean lortzeko.

– Zeharkako kostuak banatzeko formulak jardueran oinarriturik ez egotea. Horri buruzko informazio homogeneoa lortzeko zailtasunak direla eta, gerta daiteke lortutako kostua zehatza ez izatea, nahiz eta emaitza gisa lortutako kopuruan egon daitezkeen aldeak garrantzitsuak ez izan eta ateratako ondorioak ez aldarazi.

– Kostu estimatu estandar bat kalkulatu da, non ez baitira jaso gaixoari kasuko prozesu kirurgikoan nahiz osasun prestazioan arazorik gertatuz gero egiten zaizkion tratamendu eta proba gehigarrien kostua.

Muga horiek gorabehera, kontuan izanda O-NOZen zerbitzuetan dagoen informazioa eta erakunde autonomo horretako langileen laguntza, ondokoen kostua kalkulatu eta haiei dagozkien osasun prestazioen kudeaketa-alderdi batzuk ebaluatu ahal izan ditugu: erresonantzia magnetikoak, hemodialisia, traumatologiako kontsultak eta belauneko protesia jartzeko ebakuntzak.

III. OSASUN ITUNAK

Definizioa

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak ekimen pribatuaren lankidetzara arautzen du osasun zerbitzuak emateari dagokionez, eta ezartzen du zentro pribatuak sare publikoan sartzeko itun bereziak egin beharko direla entitate edo erakunde bakoitzarekin.

Osasun ituna osasun zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratu bat da, entitate pribatuekin izenpetua osasun laguntza espezializatua emateko Gizarte Segurantzaren Foru Komunitateko onuradunei eta Nafarroako Gobernuko osasun laguntzako sistemari nahiz toki entitateetako "erabilera bereziko" sistemari atxikitakoei.

Laguntza espezializatuak honakoak hartzen ditu: kontsultetako laguntza espezializatua, eguneko ospitaleko laguntza, laguntza mediko eta kirurgikoa, barnetegi-araubideko ospitaleratzea, proze-

dura diagnostiko eta terapeutikoak, gaixo terminalezako laguntza aringarria eta buru-osasuneko laguntza.

Antolamenduzko egitura

2009an, O-NOZen osasun laguntza espezializatua hiru osasun arlotan egituratuta zegoen, eta honako osasun zentroetan ematen zen:

– Iruñeko barrutia: bi ospitale orokor (Bideko Ama Birjina eta Nafarroako Ospitalea), Ortopedia-ko eta Errehabilitazioko ospitale bat (Ubarmin Klinika), lau zentro ambulatorio (Vianako Printzea Kontsultategia, San Martin Doktorea Zentroa, Oliveto Kondea Ambulatorioa eta Tafallako Ambulatorioa), buru-osasuneko zazpi zentro eta emakumeari laguntzeko zazpi zentro. Esparru horretan 469.694 pertsonari ematen zitzairen osasun laguntza.

– Lizarrako barrutia: ospitale orokor bat (García Orcoyen Ospitalea) buru-osasuneko zentro bat eta emakumeari laguntzeko hiru zentro. 64.328 pertsonako populazioa hartzen du.

– Tuterako barrutia: ospitale orokor bat (Reina Sofía Ospitalea) buru-osasuneko zentro bat eta emakumeari laguntzeko zentro bat. 96.556 pertsonako populazioa hartzen du.

Gainera, honako zentro eta zerbitzuak esleitzen zaizkio osasun laguntza espezializatuari:

– Odol Transfusioko Zentroa.

– Ikerketa Biomedikorako Zentroa.

– Prestazio eta Itunen Zerbitzua.

Osasun itunen kudeaketa, Aliancerekiko itunaren kasuan izan ezik, Prestazio eta Itunen Zerbitzuari dagokio. Aliancerekin unitate mugikorrean proba diagnostikoak egiteko eginiko ituna Laguntza Ambulatorioa Koordinatzeko Zuzendariordetzak kudeatzen zuen, zeren eta hasiera batean laguntza ambulatorioa emateko egin baitzen. Bai Prestazio eta Itunen Zerbitzua, bai aipatutako zuzendariordetza Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzaren menpean zeuden.

Itunen gastua "Laguntza espezializatua"-izeneko 541. aurrekontu-programan jasota dago.

Baliabideak

2009an, O-NOZeko ospitale-zentroek, guztira, 1.389 ohe eta 36 ebakuntza-gela zeuzkaten, 630.578 biztanleko populazioarentzat. 7.072 pertsona ari ziren ospitale zentroetan eta zentro ambulatorioan lanaldi osoan lanean. Baliabide horiek honela banatzen dira zentroz zentro, O-NOZen oroitidazkiaren arabera:

O-NOZeko ospitale zentroak	Ohe kopurua	Ebaluntza-gelak	Langileak
Nafarroako Ospitalea	499	10	2.253
Bideko Ama Birjina Ospitalea	499	15	2.072
Ubarmin Errehabilitazio Zentroa	115	4	355
García Orcoyen Ospitalea	95	3	461
Reina Sofía Ospitalea	181	4	696
Anbulatorioak			1.235
Guztira	1.389	36	7.072

Araubidea

Honakoak dira osasun itunei aplikatzekoak zaizkien arauak, bestek beste:

- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 10/1990 Foru Legea, azaroaren 23koa, Osasunari buruzkoa.
- 14/1986 Lege Orokorra, apirilaren 25ekoa, Osasunari buruzkoa.
- 243/1985 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Nafarroako osasun laguntza espezializatua antolatzen duena.
- 14/2008 Foru Legea, uztailaren 2koa, Osasun laguntza espezializatuaren arloko itxaronaldien bermeei buruzkoa.
- 16/2003 Legea, maiatzaren 28koa, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzkoa.

- 1030 Errege Dekretua, irailaren 15ekoa, Osasun Sistema Nazionalako Zerbitzu Komunen Zorroa eta hura gaurkotzeko ezarri zituena.

- O-NOZen eta Nafarroako Unibertsitate Klinikaren arteko ituna, 2005eko urtarrilaren 21ekoa.

- O-NOZen eta San Miguel Klinikaren arteko ituna, 2006ko apirilaren 6koa.

- O-NOZen eta Quirón Ospitale Taldea S.A.ren arteko ituna, 2008ko otsailaren 25ekoa.

- O-NOZen eta irudiaren bidezko diagnosirako Médicis Zentroaren arteko itunak, 2008ko otsailaren 28koa eta 2009ko urtarrilaren 2koa.

- O-NOZen eta Alliance Viamed S.L.ren arteko itunak, 2007ko irailaren 18koa, 2006ko abuztuaren 30ekoa eta 2009ko abuztuaren 4koa.

Itundutako osasun zerbitzuak

Honakoak dira aztertutako zentro pribatuekin Itundutako osasun laguntza espezializatuko presazioak:

Zentroa	Itundutako osasun prestazioak	Itunaren data	Indarraldia	Adjudikatze prozedura
Nafarroako Klinika Unibertsitarioa	Ospitaleratze araubideko laguntza Kanpo-konsulta anbulatorioak Azterketa diagnostikoak Prozesu kirurgikoak Tratamendu berezi anbulatorioak Organoen transplanteak	2005/01/21	2005eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra, 2010-12-31ra arte luza daitekeena.	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua
San Miguel Klinika	Ospitaleratze araubideko laguntza Kanpo-konsulta anbulatorioak Azterketa diagnostikoak Prozesu kirurgikoak	2006/04/06	2006ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra, 2011-12-31ra arte luza daitekeena.	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua
Quirón, S.A. Ospitale Taldea	Laguntza bidezko ugalketa teknikak	2008-02-25	2008ko martxoaren 1etik abenduaren 31ra, 2011-12-31ra arte luza daitekeena	Europar Batasunean publizitaterik egin gabeko prozedura irekiaren bidez izapidetutako esparru-akordioa
Irudiaren bidezko diagnosirako Medicis Zentroa,	Proba diagnostikoak	2008/02/28	2008ko martxoaren 1etik abenduaren 31ra, 2011-12-31ra arte luza daitekeena	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea
		2009-01-02	Kontratu berria 2009ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra, luzatzeko aukerarik gabe	Europar Batasunean publizitaterik egin gabeko prozedura negoziatuaren bidez izapidetutako esparru-akordioa
Alliance Viamed S.L (unitate mugikorrean)	Proba diagnostikoak: TAC (ordenagailu bidezko tomografia axiala)	2007-09-18	2007ko irailaren 1etik abenduaren 31ra, 2008-06-30era arte luza daitekeena	Europar Batasunean publizitaterik egin gabeko prozedura irekiaren bidez izapidetutako esparru-akordioa
		2006-08-30	2006ko urriaren 1etik abenduaren 31ra, 2008-12-31ra arte luza daitekeena	Prozedura irekia
	Proba diagnostikoak: Erresonantzia magnetikoa	2009-08-04	2009ko abenduaren 31ra arte, 2010-12-31ra arte luza daitekeena	Europar Batasunean publizitaterik egin gabeko prozedura irekiaren bidez izapidetutako esparru-akordioa

- Ospitaleratze araubideko laguntza

Unibertsitate Klinikarekin eta San Miguel Klinikarekin ituntzen da.

Ospitaleratze araubideko laguntza egonaldiaren arabera ordaintzen da. Egonalditzat jotzen da gaixoak gaua ospitalean igarotzea, eta bazkari nagusietako bat bertan egitea. Tarifan, laguntza, material, proba (hemodialisia eta PET kenduta) eta sendagaien eta hemoderibatuen gastu guztiak sartzen dira, eguneko kopuru jakin batera bitarte.

Egonaldi mediko eta kirurgikoetan, egonaldiaren lehenengo bederatzi egunetan. Egonaldiena baino prezio handiagoan fakturatuko dira hamar garren egunetik aurrera. Unitate berezietako (Zain-

keta Berezien Unitatea, Pediatriko Zainketa Berezien Unitatea eta Unitate Koronarioa) egonaldietan tarifa bera aplikatzen da egonaldi osoan.

- Kanpo-konsulta anbulatorioak

Unibertsitate Klinikarekin eta San Miguel Klinikarekin ituntzen dira.

Kontsultak honela sailkatzen dira: lehenengo kontsultak eta azterketa-kontsultak. Azterketa-kontsulta bat jotzen da gutxienez ere lehenengo kontsultaren ondoren egiten dena, ospitaleratzearen senda-agiria formalizatu ondoren edo aurreko azterketa egin ondoren, eta gaixoaren lehenengo kontsulta edo ospitaleratza eragin zuen prozesu berari dagokio.

Kontsulten tarifan sartzen dira, bisitaz gainera, material guztiak eta gaixoari eginiko proba, esplorazio eta barne-kontsulta guztiak, salbu eta proba berezi batzuk; esate baterako, erresonantzia magnetikoa edo eskanerra, zeinak bereiz fakturatzan baitira.

- Prozesu kirurgikoak

Unibertsitate Klinikarekin eta San Miguel Klinikarekin ituntzen dira.

Itunean zehaztutako prozesu kirurgiko zehaztarako, prezio finko bat ezartzen da ("forfait" esaten zaio), non gaixoaren gastu guztiak sartzen baitira, ospitaleratu zenetik hasi eta senda-agiria jaso zuen arte, aurretiko eta geroko kontsultaz gainera; halaber, prozesu kirurgikoa egin ondorengo bi hilabeteetan behar diren proba diagnostiko guztiak sartzen dira. Orobat, protesi kirurgikoak eta inplantak ere sartzen dira, salbu eta aldakako protesia, belaunekoa, bihotzeko balbuletakoa, pauso-markagailua eta abar.

O-NOZek hornitzaileari adjudikatzen dizkio eta zuenean ordaintzen dizkio forfaitean sartzen ez diren protesiak, salbu eta berariazko justifikazio teknikoa dagoenean, bestelako protesi edo inplate bat ezartzea eragiten duena.

- Azterketa diagnostikoak

Unibertsitate Klinikarekin, San Miguel Klinikarekin, irudiaren bidezko diagnosirako Médicis Zentroarekin eta Alliance Viamedekin ituntzen dira.

Beste proba batzuen artean, honakoak sartzen dira: erresonantzia magnetikoa, TAC (ordenagailu bidezko tomografia axiala), ekografia, mamografia, PET (positroi-emisioaren bidezko tomografia) eta hezur-dentsitometria).

- Tratamendu berezi ambulatorioak

Unibertsitate Klinikarekin eta San Miguel Klinikarekin ituntzen dira. Honako tratamenduak sartzen dira: hemodialisia, errehabilitazioa, erradioterapia eta abar.

- Transplanteak

Transplante guztiak Unibertsitate Klinikarekin ituntzen dira; O-NOZen ez da transplanterik egiten.

Tarifan gaixoa ospitaleratzeko gastuak sartzen dira, prozeduraren aurretik gehienez ere bi egunekin, altaren egunera bitarte, aurretiko eta ondorengo kontsultez gainera; halaber, transplantearen ondoren sei hilabetetan zehar behar diren diagnosi probak ere sartzen dira.

Emaileen organoak erauzteko, biltzeko eta garraiatzeko gastuak, berriz, O-NOZek ordaintzen ditu zuzenean.

- Laguntza bidezko ugalketa teknikak

Quirón Ospitale Taldearekin ituntzen dira antzutasunerako laguntza bidezko ugalketa teknikekin eginiko tratamenduak.

IV. ONDORIOAK

2008ko eta 2009ko gastua eta itundutako jarduera aztertu ditugu, bai eta osasun itunetara bideratutako funtsen inguruko antolamenduko alderdiak eta alderdi funtzional eta ekonomikoak ere, kostua kalkulatu dugun osasun prestazioetan; hau da, belauneko eta orkatilako erresonantzia magnetikoa; traumatologiako kontsultak, hemodialisiko saioa eta belauneko protesia jartzeko ebakuntza.

Hona hemen, lortutako ondorio nagusiak.

- Gastua eta itundutako jarduera

Aztertutako osasun itunen gastua 28,66 milioi eurokoa izan zen 2009an. Osasun gastuaren ehuneko 3 egiten du, eta 2008an baino % 24 gehiago izan zen.

Hona 2008an eta 2009an itundutako gastuen xehekapena, zentroen arabera:

Zentroa	2008	Guztizkoaren gaineko ehunekoa	2009	Guztizkoaren gaineko ehunekoa	2008/2009 aldea
Klinika Unibertsitaria	17.170.596	% 74,5	19.918.332	% 69	% 16
San Miguel Klinika	3.275.103	% 14	5.980.868	% 21	% 82,5
Quirón, S.A. Ospitale Taldea	980.476	% 4	885.761	% 3	-% 9,5
Irudiaren bidezko diagnosirako Médicis Zentroa,	747.150	% 3,5	1.055.777	% 4	% 41
Alliance Medical Diagnósticos S.L.	916.234	% 4	817.802	% 3	% -11
Guztira	23.089.559	% 100	28.658.540	% 100	% 24

2009ko gastu guztiaren ehuneko 69 Unibertsite Klinikarekiko itunari dagokio; ehuneko 21 San Miguel Klinikarekiko itunari; ehuneko 4 irudiaren bidezko diagnosirako Médicis Zentroari; ehuneko 3 Quirón Ospitale Taldeari eta ehuneko beste 3 Alliance Medical Diagnósticos S.L. Zentroari.

San Miguel Klinikarekin itundutako gastuaren igoera zor zaio 2009an geriatriako oheak itundu izateari, Nafarroako Ospitaleko obrak direla eta.

2008. eta 2009. urteetan, osasun itunetarako hasierako aurrekontu zuzkidura ez zen nahikoa izan itundutako gastu errealari aurre egiteko. Har-

tara, gastu errealaren ehuneko 20 eta 48 izan zen 2008an eta 2009an, hurrenez hurren. Hasierako aurrekontua baino handiagoa, beraz.

Kasuko ekitaldian ez zen guztizko gastua kontabilizatu. Nabarmentzekoa da 2009an dagoen desfasea, gastu errealaren -28,66 milioi euro- eta kontabilizatutako gastuaren -19,92 milioi euro- artekoa.

Itundutako osasun prestazioen mota desberdinen jarduera eta haiei lotutako itunaren 2008ko eta 2009ko gastua honakoak izan ziren:

Osasun prestazioa	Itundutako jarduera			Itundutako gastua		
	2008	2009	Aldea	2008	2009	Aldea
Ospitaleratzeen egonaldiak:	16.875	22.660	% 34	5.850.439	8.117.227	% 39
Prozesu kirurgikoak	1.430	2.755	% 93	5.449.565	7.047.725	% 29
Kontsultak	6.906	10.096	% 46	925.167	1.351.871	% 46
Proba diagnostikoak	17.837	22.601	% 27	2.834.015	4.049.423	% 43
Tratamendu berezi anbulatorioak	12.732	12.849	% 1	1.815.044	1.574.559	% -13
Organoen transplanteak	45	53	% 18	4.144.884	4.657.069	% 12
Ugalkortasun tratamenduak	347	338	% -3	980.476	885.761	% -10

Honakoak izan ziren 2009an itundutako osasun prestazio nagusiak:

- 22.660 ospitaleratze-egonaldi zentro itunduetan, guztira 8,12 milioi euroko gastua ekarri zutenak, 2008an baino ehuneko 39 gehiago; egonaldi horiek ehuneko 34 egin dute gora.

- 2.755 prozesu kirurgiko, 7,05 milioi euroko gastuarekin -2008an baino ehuneko 29 gehiago-.

- 53 organo transplante, 2008an baino zortzi gehiago: 4,66 milioi euroko gastua ekarri zuten.

- 22.601 proba diagnostiko, 2008an baino ehuneko 27 gehiago. 4,05 milioi euroko gastua egiten dute, 2008an baino ehuneko 43 gehiago, hain zuzen.

- tratamendu berezi anbulatorioak, 1,57 milioi euroko gastua ekarri zutenak -2008an baino ehuneko 13 gutxiago-. 2009kok jarduera aurreko ekitaldikoaren antzekoa da.

- 10.096 kontsulta, 1,35 milioi euroko gastuarekin -2008an baino ehuneko 46 gehiago-.

Ondoren, osasun prestazio batzuen jarduera itundua erakusten dugu, 2008koa eta 2009koa:

Ospitaleratzeen egonaldiak	2008	2009	Aldak. absolutua	Aldak. erlatiboa
Jarduera berekia	384.493	366.509	-17.984	% -4,68
Itundutako jarduera	16.875	22.660	5.785	% 34,28
Jarduera berekiaren gainek itundutako jardueraren ehunekoa	% 4,38	% 6		

Zentro publikoetan ospitaleratze egonaldiak jaitsi izatea eta egonaldi itunduen 2009ko hazkundea egotea justifikatzen duten arrazoiak bat Nafarroako Ospitalean eginiko obrak izan dira.

O-NOZen oroitidazkietan jasotako datuetatik ondorioztatzen denez, zentro publikoetako ospitaleratze-egonaldiek goranzko joerarekin jarraitzen dute 2005etik 2008ra, urteko ehuneko 0,3 eta 0,7 bitarte.

Prozesu kirurgikoak	2008	2009	Aldak. absolutua	Aldak. erlatiboa
Jarduera berekia	39.852	40.740	888	% 2,23
Itundutako jarduera	1.430	2.755	1.325	% 92,65
Jarduera berekiaren gainean itundutako jardueraren ehunekoa	% 3,59	% 6,76		

2009an itundutako prozesu kirurgikoek prestazio horretan jarduera berekiaren ehuneko 6,76 egin dute. 2009an nabarmen egin dute gora 2008ko

ekitaldiarekin alderatuta, bai termino absolutuetan, bai erlatiboetan.

Kontsultak	2008	2009	Aldak. absolutua	Aldak. erlatiboa
Jarduera berekia	982.587	1.007.024	24.437	% 2,49
Itundutako jarduera	6.906	10.096	3.190	% 46,19
Jarduera berekiaren gainean itundutako jardueraren ehunekoa	% 0,70	% 1		

2009an itundutako kontsultek zentro publikoetan guztira eginikoen ehuneko bat baizik ez dute eginen. Kontsulta itunduek proportzio handiagoan egin dute gora jarduera berekiak baino.

- Itunen justifikazioa

O-NOZek zentro pribatuekin osasun prestazioak ituntzea justifikatzen du esanez behar adina baliabide publiko ez dagoela osasun eskariari erantzuteko, itxarote-zerrendak gutxitzeari eta larraldikoa ez den osasun laguntza espezializatu programatuaren prestazioan, hain zuzen ere Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko 14/2008 Foru Legean ezarritako epeak betez.

Halaber, osasun laguntza espezializatuko zerbitzuen zorroan sarturik dauden baina O-NOZek ematen ez dituen prestazioak itundu ziren; esate baterako, transplanteak, ugalkortasuneko tratamenduak edo diagnosi proba batzuk, zeinetarako O-NOZek behar adinako teknologiarik ez baitu.

Ez da ageri azterlanik itunak sinatzea aurrez analizatzen edo ebaluatzen duenik, edo osasun laguntzak emateko alternatibak ematen dituenik, dela bitarteko berekiekin, baliabide berriak eskuratuz zein daudenak berrantolatuz, dela besteren bitartekoekin.

- Itunen kudeaketa

Gaixoak zentro itunduetara deribatzeke, eskari edo preskripzio medikoak behar dira, eta Prestazio eta Itunen Zerbitzuak eman behar du baimena.

Prestazio eta Itunen Zerbitzuak kudeatutako itunen fakturazioaren gaineko kontrola nahiko arazoizkoa eta egokia da.

Alliancerekiko itunaren kasuan –Laguntza Anbulatorioa Koordinatzeko Zuzendariordetzak kudeatzen zuen–, gure ustez egin zen kontrola ez zen nahikoa, zeren eta baimena ez baitzen deribazioa egin aurretik izapidetzen eta ez baitzen deribatutako gaixoei zegokien fakturazioa egiaztatzen.

- Itundutako prestazioen tarifak.

Ez da ageri kostuei buruzko azterlanik, zentro pribatuekin osasun prestazioetarako itundutako tarifak justifikatzen duenik, ez eta zentro pribatuei prestazio beraren truke ordaindutako tarifen justifikaziorik ere.

Prestazio beretarako zentro pribatu desberdinen tarifen artean alde nabarmenak daude. Itunaren testuan ez da zehazten edo deskribatzen elementu bereizgarrien ezaugarri edo elementuak.

Zentro itunduen 2009ko tarifak, erresonantzia magnetikoa, hemodialisia, traumatologiako kontsulta eta belauneko protesia jartzeko ebakuntza kirurgikoarena, orokorrean, prestazio horietarako osasun zentro publikoetan kalkulatu dugun kostuaz gainekoak dira, eta zentro pribatuek, orokorrean, sartzan duten etekin-tartea kontuan izanda ere, aldea nabarmena da, hemodialisiaren kasuan izan ezik.

Ondoren alderatzen dugu, batetik, aztertutako osasun prestazioek zentro publikoetan duten kostua eta, bestetik, haietarako zentro itunduetan dagoen tarifa.

- 1.- Erresonantzia magnetikoak

2009an, 29.858 erresonantzia magnetiko egin zitzaizkien gaixoei O-NOZen, zentro pribatuetan baino ehuneko 47 gutxiago. Honakoa izan zen zentroen 2009ko jarduera:

Zentro publikoak	Erresonantzia magnetikoen kopurua
Nafarroako Ospitalea	6.294
Bideko Ama Birjina Ospitalea	4.345
San Martín zentroa	5.076
Guztira...	15.715
Zentro pribatuak	Erresonantzia magnetikoen kopurua
Alliance Medical	8.043
Médicis	4.010
San Miguel Klinika	1.541
Klinika Unibertsitaria	549
Guztira...	14.143

2009an belauneko eta orkatilako erresonantzia soiletarako kalkulatu den kostua, kontrastearekin nahiz kontrasterik gabe, eta erresonantzia mota guztietarako zentro itunduek daukaten tarifa (erresonantzia soilak eta bikoitzak, kontrastearekin

nahiz gabe, Allianceren kasuan izan ezik, bertan azterlan bikoitzek % 60ko errekarua baitute, eta txostenik gabeko azterlan sinpleek txostenarekin egindakoen % 89ko kostua baitute) honakoa izan zen:

Erresonantzia magnetikoaren mota	Nafarroako Ospitalea	Bideko Ama Birjina Ospitalea	*San Marín Zentroa	*Alliance	Médicis	San Miguel Miguel	C. Unibertsitaria
Belauneko, kontrasterik gabe	63,51	102,64	55,46	105	253,5	250	398,6
Orkatilakoa, kontrasterik gabe	63,51	109,54	64,25	105	253,5	250	398,6
Orkatila edo belauna, kontrasterik gabe	146,29	207,18			253,5	250	398,6

* Zentro horietan ez da kontrastedun probarik egiten.

2.- Hemodialisi saioa

2009an O-NOZeko gaixoei eginiko hemodialisi saioak 40.728 izan ziren; Horien ehuneko 19 zen-

tro pribatu batean egin ziren. Zentro publikoetako hemodialisi saio bakoitzaren kostua eta 2009an tratamendu hori egiteko itundutako tarifa honakoak izan ziren:

Zentroa	Kostua/tarifa	Saio-kopurua 2009an
Zentro publikoak		
Bideko Ama Birjina Ospitalea	161,49	10.615
Nafarroako Ospitalea	167,86	16.461
Reina Sofía Ospitalea	174,04	5.840
Zentro pribatuak		
Klinika Unibertsitaria	168,12	7.812
Saioak, guztira		40.728

3.- Traumatologiako kontsultak

2009an traumatologiako 98.568 kontsulta egin ziren. Horien ehuneko 2 zentro indunduetan egin ziren.

2009an, honakoa izan zen O-NOZeko zentroetako kontsulta bakoitzerako kalkulaturako gutxie-

neko eta gehieneko kostua, probak eta tratamenduak egitearen edo ez egitearen arabera, eta itundutako tarifa, hain zuzen ere tarifa bera espezialitate guztietarako (tarifa horretan sartzen dira, gainera, material, proba eta azterketa guztiak, salbu eta erresonantziak eta eskanerrak):

Zentroa	Kostua/tarifa				Jarduera	
	1. kontsulta		Azterketarako kontsulta		1. kontsulta	Azterketarako kontsulta
	Gutxienekoa	Gehienekoa	Gutxienekoa	Gehienekoa	Kontsulta-kop.	
Zentro publikoak						
Ubarmin klinika	38,81	91,32	19,41	71,92	18.305	31.431
Nafarroako Ospitalea	30,53	59,61	22,17	51,25	6.343	14.458
Reina Sofía Ospitalea	39,48	62,66	19,74	42,92	5.977	10.149
García Orcoyen Ospitalea	39,11	77,50	19,55	57,95	3.788	6.187
Zentro pribatuak						
Klinika Unibertsitaria	171,82		138,92		1.345	177
San Miguel Klinika	113,94		65,11		8	400
Kontsultak, guztira					35.766	62.802

4. Belauneko protesia jartzeko ebakuntza

2009an, belauneko protesiak jartzeko 739 ebakuntza egin ziren; horietatik ehuneko 14 zentro pribatuetara.

Ebakuntza O-NOZeko zentroetan egiteko kalkulatu den kostua eta 2009an haien egiteko itundutako tarifa:

ZENTROA	Kostua/tarifa	Esku-hartzeen kopurua
Zentro publikoak		
Ubarmin klinika	4.518,26	409
Nafarroako Ospitalea	3.628,03	115
Reina Sofía Ospitalea	3.539,92	80
García Orcoyen Ospitalea	3.789,50	33
Zentro pribatuak		
Klinika Unibertsitaria	7.418,23	77
San Miguel Klinika	4.437,63	25
Ebakuntzak, guztira:		739

V. GOMENDIOAK

Ondoren, zenbait gomendio ematen ditugu entitate pribatuekiko osasun itunetarako funts publikoen kudeaketa hobetzeko.

Gomendio horien ezarpenak berarekin ekarri beharko luke bai O-NOZeko osasun langileen, bai kudeataileen parte-hartzea eta koordinazioa, aurrezkiak ekarriko litzuzke eta efizientzia handiagoa ekarriko luke baliabide publikoen erabilera. Gainera, lagungarri gertatuko litzateke 2006-2012 urteetako osasun planean ezarritako helburuetako bat lortzeko, hau da, osasun sistema publikoa sostengatzeko.

- *Itunak egin aurretik aztertzea eta ebaluatzea osasun laguntza baliabide berekiekin emateko aukerak, dela baliabide horiek eskuratuz, dela egun daudenak berrantolatuz, haiek optimizatze aldera; edo, bestela, zentro pribatuekin ituntzearen bidetik.*

- *O-NOZen osasun zerbitzuen kostua kalkulatzeko, behar diren erabakiak hartzeko informazioa edukitzeko; esate baterako, zentro itunduen tarifak ezartzea, haiek berrikustea edo osasun zerbitzuen kudeaketarako dauden aukerak ebaluatzea.*

Esate baterako, erresonantzia magnetikoen kasuan, kontuan izanda haien ia ehuneko 50 zentro pribatuekin ituntzen direla eta 2009an ituntzeak 2,44 milioi euroko gastua ekarri zuela, proba diagnostiko horiek egiteko dauden aukerak aztertzea eta ebaluatzea; esate baterako, proba horiek egiteko ekipoak erostea O-NOZen zentro desberdinetarako, edo probak kanpoko baliabideekin egitea.

- *Prozedurak eta jarraibideak ezartzea, zerbitzu medikoei eta gaixoak zentro pribatuetara deribatzerakoan inplikaturiko gainerako agenteei jakinarazteko zein itun eta tarifa ezarri diren osasun prestazio itunduetarako, haiek kontuan har daitezkeen gaixoak zentro itunduetara deribatzeke garaietan.*

- *Ebaluatzea, osasun laguntzaren prestazioa hobetzeko legegintzako neurriak onetsi baino*

lehen, haiek efektiboki aplikatzeko behar diren baliabideak eta haiek ezartzeko balizko aukerak, eta haiek dakarten gastua kalkulatzeko.

- *Izenpetutako itunetan, adierazleak jasotzea, inkestak eta kexak jasotzeaz gainera, osasun laguntza itunduaren kalitatea neurtzeko.*

- *Aurrekontuetan behar diren kredituak jasotzea, osasun itunen gastuei aurre egiteko eta gastuak egiten diren ekitaldian kontabilizatzeke.*

- *Alliancerekiko itunaren kasuan, egiaztatzea fakturatutako gastua deribatu eta zentro itunduetan artatutako gaixoei dagokiela.*

- *Lantalde bat formalki eratzea, O-NOZeko profesionalen talde bat O-NOZeko ospitale zentron artean kostuen banaketari buruz, funtsean langileei dagokienez, egiten ari den lanarekin jarrai dezan. Horri dagokionez, komenigarria litzateke jarduketan egutegi bat finkatzea, lanaren amaieran kontabilitate analitiko bat ezartzeko. Kontabilitate modu hori egiazko tresna bat izanen da erabakiak hartzeko. Horri dagokionez, komenigarria litzateke jarduketan egutegi bat finkatzea, lanaren amaieran kontabilitate analitiko bat ezartzeko. Kontabilitate modu hori egiazko tresna bat izanen da erabakiak hartzeko.*

Egiteko horretan, ospitale-zerbitzu desberdinek parte hartu beharko lukete, bai eta egiten den jarduerari eta kontsumitutako baliabideei buruzko datuak dauzkaten O-NOZeko beste unitate organiko batzuek ere, eta zuzendaritzaren laguntzarekin eta bultzadarekin.

VI. OSASUN ITUNEN KUDEAKETARI BURUZKO EBALUAZIOA

VI.1 OSASUN ITUNEN ETA JARDUERA ITUNDUAREN GASTUA

- *Gastua*

Honakoa izan zen osasun zentroekiko itunen gastua 2005etik 2009rako aldian:

Zentroa	2005	2006	2007	2008	2009
Unibertsitate Klinika	11.970.340	16.161.365	16.412.064	17.170.596	19.918.332
- Osasun-laguntza	8.173.653	12.180.887	12.629.227	13.025.712	15.261.263
- Organoen transplanteak	3.796.687	3.980.478	3.782.837	4.144.884	4.657.069
San Miguel Klinika		680.529	1.426.166	3.275.103	5.980.868
Quirón, S.A. Ospitale Taldea	528.201	697.784	679.179	980.476	885.761
Médcis Zentroa, irudi bidezko diagnostikoa				747.150	1.055.777
Alliance Medical Diagnósticos S.L.		160.255	760.780	916.234	817.802
Guztira	12.498.541	17.699.933	19.278.189	23.089.559	28.658.540

Oharra: zentro itunduetan artatutako erabilera bereziko sistemako onuradunei dagokien gastua sartu da; gastu hori ez da osasun itunen kontusailean sartu.

Aipatutako zentro horiekin egindako osasun itunek 28,66 milioi euroko gastu erreala eragin zuten 2009. urtean. Urte horretan kontabilizatutako gastua 19,92 milioi eurokoa izan zen, eta gainerakoa 2010ean kontabilizatu zen.

2008ko eta 2009ko aurrekontuetan, osasun itunen kontusailean, kalkulaturako hasierako kredituak ez ziren nahikoak izan ekitaldi horien barruan horien gastuari aurre egiteko, premia errealean azpitiko aurrekontuak egin baitziren. Osasunaren alorreko eskaera zehazteko zalantzak zaildu egiten du ekitaldi batean hitzartuko den jardueraren estimazioa; hala eta guztiz ere, hasierako aurrekontuan ez zen jaso aurreko ekitaldian hitzartutako prestazioei zegokien gastua, ezta hitzartutako tarifen urteko berrikuspenari dagokion gehikuntza ere.

2009an Unibertsitate Klinikarekin egindako itunak aztertutako gastu erreala osoaren ehuneko 69

osatzen zuen, eta haren atzetik San Miguel Klinikari zegokiona zegoen, ehuneko 21ekin.

Aztertutako itunen gastu orokorra ehuneko 24 handitu zen 2008tik 2009ra, eta bost urtean, 2005etik 2009ra hain zuzen, ehuneko 129 handitu zen. Itundutako osasun laguntza handitu izana da aldaketa horren azalpen nagusia; handitu egin zen laguntza itundua Unibertsitate Klinikarekin, 2005ean 8,17 milioi eurotik 2009an 15,26 milioira igo baitzen, eta baita San Miguel Klinikarekin ere, 2009an 5,98 milioikoa izan baitzen (2005ean ez zegoen itunik zentro horrekin), bereziki Nafarroako Ospitaleko lanen ondorioz geriatricarako oheak hitzartu zirelako.

Taula honetan, Nafarroako Osasunaren alorreko gastu erreala azaltzen da, 2008 eta 2009. urteei dagokiena, kontzeptuen arabera banatuta, eta orobat azaltzen da aztertutako osasun itunek adierazten dutena:

Kontzeptua	2008	% guztizko gastuari buruz	2009	% guztizko gastuari buruz	2008/2009 gastuaren igoera %
Langileak	463.873.130	51	502.579.525	52	8
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	233.032.577	25	250.450.043	26	7
Transferentzia arruntak	180.158.387	20	190.262.969	19	6
Inbertsioak	34.436.341	4	28.037.020	3	-19
Kapital-transferentziak	1.047.949		2.428.213		132
Osasun alorreko gastua, guztira	912.548.384	100	973.757.770	100	7
Aztertutako osasun-itunak	23.089.559	2,5	28.658.540	3	24

Osasunaren alorreko gastua, guztira, 973,76 milioikoa izan zen 2009an, hau da, eskualdeko BPGaren ehuneko 5,36⁽¹⁾ eta Foru Komunitateko Administrazioaren gastu guztien ehuneko 22. 2008an baino ehuneko zazpi handiagoa izan zen. Aztertutako itunen gastua ehuneko 24 handitu zen denbora horretan.

Osasunaren alorreko gastu guztiaren erdia baino gehiago, ehuneko 52, langileen atalari dago-

kio, ehuneko 26 ondasun arruntan eta zerbitzuen erosketari, ehuneko 19 transferentzia arruntei eta ehuneko hiru inbertsioei. Aztertutako osasun itunek ehuneko hiru osatzen dute.

- Jarduera

Ondoren, 2008an eta 2009an egindako jardueren datuak eskaintzen dira, eta baita hitzartutako osasun zentro bakoitzari dagokion gastua ere.

(1) 18.183.172 mila euro, Estatistikako Nazio Institutuaren arabera.

Osasun-prestazioak	Jarduera		Gastua		Aldea, jardueran	Aldea, gastuan
	2008	2009	2008	2009		
Ospitaleratzea (egonaldiak)	9.432	11.162	3.559.939	4.441.385	% 18	% 25
Kontsultak	6.569	8.292	902.257	1.211.653	% 26	% 34
Prozesu kirurgikoak	1.009	1.602	4.635.559	5.446.436	% 59	% 17
Diagnostikorako azterketak	3.315	6.582	1.087.612	1.652.470	% 99	% 52
Tratamendu ambulatorio bereziak	11.532	11.895	1.773.813	1.549.631	% 3	-% 13
Transplanteak	45	53	4.144.884	4.657.069	% 18	% 12
Beste zenbait			1.066.532	959.688		-% 10
Guztira			17.170.596	19.918.332		% 16

2009an Unibertsitate Klinikarekin egindako itunak 19.918.332 euroko gastua eragin zuen, 2008an baino % 16 gehiago, eta honako osasun prestazio hauei dagokie:

- % 27 prozesu kirurgikoak: 1.602 ebakuntza kirurgiko egin ziren, eta horien artean nabarmen-tzen dira belaun ordezkapenak eta artroskopiak, ebakuntzei dagokion gastu guztiaren ehuneko 10 eta ehuneko 9 osatu zutenak, hurrenez hurren.

- % 23 transplanteak

- % 23 ospitaleratzeak: ospitaleratze guztietatik, ehuneko 21 psikiatriakoak dira, ehuneko 15 hepatologiakoak, ehuneko 10 pediatriakoak, ehuneko 9 nefrologiakoak, ehuneko 7 kardiologiakoak,

ehuneko sei neurologiakoak eta gainerakoak hainbat zerbitzuren artean banatzen dira.

- % 8 diagnostikorako azterketak: aipatzekoa da positroien igorpen bidezko tomografia proba (PET), ehuneko 55 hartzen duena (O-NOZek ez du teknologia hori), ehuneko 16 hezurreko dentsitometriei dagokie eta ehuneko 13 erresonantzia magnetikoei.

- % 8 tratamendu ambulatorio bereziak, eta horietatik ehuneko 87 hemodialisi-saioak.

- % 6 kontsultak dira: 2009an izandako 8.292 kontsulten artean, kontsulten gastuen ehuneko 19 ortopedia/traumatologiako lehenengo kontsultei dagokie, ehuneko 18 nefrologiako errebisioei eta ehuneko 11 hepatologiako errebisioei.

Osasun-prestazioa	Jarduera		Gastua		Aldea, jardueran	Aldea, gastuan
	2008	2009	2008	2009		
Ospitaleratzeak (egonaldiak)	7.443	11.498	2.290.500	3.675.842	% 54	% 60
Kontsultak	337	1.804	22.910	140.218	% 435	% 536
Prozesu kirurgikoak	421	1.153	814.006	1.601.289	% 174	% 97
Azterketa diagnostikoak	1.108	3.659	83.019	523.374	% 230	% 530
Errehabilitazioa	1.200	954	41.231	24.928	-% 20	-% 40
Beste zenbait			23.437	15.217		-% 35
Guztira			3.275.103	5.980.868		% 83

San Miguel Klinikarekiko itunaren gastu guztia 5.980.868 eurokoa izan zen 2009an, hau da, 2008an baino ehuneko 83 gehiago. Gehikuntza horren arrazoi nagusiak honakoak dira: ospitaleratze hitzartua ehuneko 60 handitu zen, prozesu kirurgikoak ehuneko 97 eta diagnostikorako probak ehuneko 530.

2009an itundutako gastua honako prestazio hauei dagokie:

- % 61 ospitaleratzei, bereziki geriatriakoei.

- % 27 ebakuntza kirurgikoei, eta horien barruan ehuneko 54 barizeak lotu eta erauzteko izan

ziren eta ehuneko 15 artroskopiak-menisektomiak eta lotailuak egiteko.

- % 9 azterketa diagnostikoei, eta horietatik % 73 erresonantzia magnetikoak dira eta % 19 eko-dopplerrak.

- % 2 kontsultei, eta horietatik % 62 kirurgia kardiobaskularrekoak dira eta % 26 geriatriakoak.

Quirón Ospitale Taldea

2009an itundutako gastua 885.761 eurokoa izan zen, 2008an baino % 10 gutxiago. Egindako emankortasun-tratamendu nagusiak honako hauek izan ziren:

Osasun-prestazioa	Jarduera		Gastua		Aldea, jardueran	Aldea, gastuan
	2008	2009	2008	2009		
Injekzio intrazitoplasmaticoa	271	257	773.589	674.367	-% 5	-% 13
In vitro emalketa	76	81	175.036	183.711	% 7	% 5

2011. urtean emankortasun-unitate berri bat zabaldu zen Bideko Ama Birjina Ospitale zaharrean, eta han egingo dira gaur egun Quirón Taldearekin hitzartuta dauden tratamenduak.

Médecis Zentroa, irudi bidezko diagnostikoa

Gastu guztia 2009an 1.055.777 eurokoa izan zen, 2008an baino ehuneko 41 gehiago. Hitzartutako diagnostikorako azterketa nagusiak honakoak izan ziren:

Osasun-prestazioa	Jarduera		Gastua		Aldea, jardueran	Aldea, gastuan
	2008	2009	2008	2009		
Erresonantzia magnetiko nuklearra	2.224	4.010	556.000	1.016.535	% 80	% 83
Ekografia diagnostikoak	1.764	307	176.400	39.242	%-83	%-78

Alliance Medical Diagnósticos S.L.

2009an hitzartutako gastua 817.802 eurokoa izan zen, 2008an baino % 11 gutxiago (2008an 207.491 euroko TAC probak egin ziren). 2009an hitzartutako jarduera osoa erresonantzia magnetikoei dagokie, guztira 8.043, eta 2008an, berriz, 8.043 egin ziren.

VI.2 ITUNEN JUSTIFIKAZIOA ETA HELBURUAK

• Justifikazioa

Hitzartutako osasun laguntza espezializatu gehiena O-NOZek eskainitako ospitaleratzeei, prozesu kirurgikoei, kontsultei, diagnostikorako probei eta tratamendu ambulatorio bereziei dagokie.

Osasun eskaerari erantzuteko baliabide publiko urritasunaren eta eskaera hori legean ezarritako epean egiteko ezintasunaren bitartez justifikatzen ditu O-NOZek osasun hitzarmenak.

Era horretara, arreta espezializatuko itxaron bermeen gaineko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legeak ezarri zuen gaixoak eskubidea duela osasun sistema publikoan gehieneko epeetan arreta jasotzeko edo, hala ezin bada, eta horren ordez, zentro itunduetan.

Arreta espezializatuko osasun laguntza programatua, premiazkoa ez dena, edukitzeko gehieneko itxaronaldiak honakoak dira:

Osasun-prestazioa	Gehieneko epea:
Kontsultak	30 egun
Lehentasunezko kontsultak	10 egun
Diagnostikorako probak	45 egun
Ebakuntza kirurgikoak (araudiaren arabera ezarriak)	120 egun
Bihotzeko kirurgia	60 egun
Ebakuntza kirurgikoak, itxaronaldiaren ondorioz osasunak ez badu okerrera egiten	180 egun

Alliance Medical Diagnósticos SL eta Médecis Zentroarekiko hitzarmena izenpetzeko premia diagnostikorako probak egiteko itxaronaldiak bete beharrak bultzatua izan zela azaldu zen.

Era horretara, zentro horiekin hitzartutako gastuaren ehuneko 100 itxaron zerrenden ondoriozkoa da, eta arrazoi horrek azaltzen du, hain zuzen ere, San Miguel Klinikarekin 2009an hitzartutako gastuaren ehuneko 37 eta urte horretan bertan Unibertsitate Klinikarekin hitzartutako osasun laguntzaren ehuneko 25.

San Miguel Klinikarekin ospitaleratze geriatrikoetarako egindako hitzarmena premia jakin baten ondorioa da, hain zuzen ere, Nafarroako Ospitale zaharreko lanen ondorioz NOZen Geriatria Zerbitzuko erientzako ohe premiak.

Horrez gainera, zentro pribatuekin hitzartu ziren O-NOZek egiten ez dituen osasun zerbitzuen Zorroaren barneko prestazioak, hala nola emankortasun-tratamenduak Grupo Quirón S.A zentroarekin, transplanteak Nafarroako Unibertsitate Klini-

karekin edo positroien igorpen bidezko tomografia probak (PET) Unibertsitate Klinikarekin.

Ez dago jasota hitzarmenaren aurretik aztertu denik zer irtenbide egon litezkeen osasun laguntzak emateko, bai bertako baliabideez –beharrezko baliabideak erosituz edo daudenak berrantolatuz– bai zentro pribatuekin egindako hitzarmenen bitartez lortutako kanpoko baliabideez baliatuta.

- Xedeak

Osasun itunetan finkatutako xedeak O-NOZen eta hitzartutako zentroaren arteko lankidetzaz eta koordinazio-jardueretan oinarri hartuta definitzen dira.

Besteak beste, O-NOZek bidalitako pazienteen arretari dagokionez asebetetasun-maila handia lortzea bilatzen da, eta gogobetetasun-maila hori neurtu ahal izatea, era horretara finkatu ahal izango baitira, komenigarria izanez gero, dagozkion neurri zuzentzaileak.

Era horretara, asebetetasun galdetegiak egitea eta bi alderdiei horien emaitzen berri ematea aurreikusten da. Ez da zentro hitzartuetan hartutako pazienteen gogobetetasuna neurtzeko galdeketarik egin.

Gure ustez, galdetegiak egitea ez da nahikoa; hitzartutako osasun prestazioen kalitatea neurtzeko adierazleak definitu eta ezarri behar dira.

VI.3 ITUNDUTAKO TARIFAK

Zentro pribatuetan itundutako osasun prestazioen tarifak, prozedura ireki bidez adjudikatutako itunetan izan ezik, Prestazioen eta Itunen Zerbitzuaren eta osasun zentro pribatuaren artean negoziatzen eta zehazten dira. Tarifak finkatzeko bide dela eta, zentro itunduaren arabera aldatu egiten dira osasun prestazio beragatik ordaintzen diren prezioak.

Prozedura ireki bidez adjudikatutako itunen kasuan, lizitazioaren gehieneko tarifa bat finkatzen da.

Egiaztatu dugunez, alde nabarmenak daude prestazio beragatik ordaintzen diren tarifei dagokionez zentro pribatu batzuetatik besteetara, eta itunaren testuan ez da izendapen bereko osasun prestazioen elementu edo ezaugarri bereizgarririk zehazten eta deskribatzen. Era horretara, hona hemen 2009an tarifa bera ez duten zenbait osasun zerbitzu itundu:

KONTSULTAK	San Miguel K.	Unibertsitate K.	Aldea (%)		
1. kontsulta	113,94	171,82	% 51		
Errebisiorako kontsulta	65,11	138,92	% 113		
OSPITALERATZEA	San Miguel K.	Unibertsitate K.	Aldea (%)		
Ospitaleko egonaldia, lehenengo 9 egunetan	314,68	366,72	% 17		
Ospitaleko egonaldia, hamargarren egunetik aurrera	227,88	275,61	% 21		
Egonaldia ZIUn eta pediatriako ZIUn	849,64	1.098,68	% 29		
PROBA DIAGNOSTIKOAK	San Miguel K.	Unibertsitate K.	Aldea (%)	Médicis	Alliance
Erresonantzia magnetiko bakuna	250,00	398,87	% 59	253,50	105
OTA	131,84	151,92	% 15		
Polipektomia endoskopikoa	461,36	896,07	% 94		
Mamografia	65,10	86,81	% 33		
Anestesiako plusa	95,37	128,87	% 35		
PROZESU KIRURGIKOAK (FORFAIT)	San Miguel K.	Unibertsitate K.	Aldea (%)		
Tiroidektomia	3.724,92	4.778,01	% 28		
Trabekulotomia	1.001,53	1.154,43	% 15		
Zistektomia	6.218,91	10.863,11	% 75		
Nefrektomia	4.817,58	6.533,06	% 36		
RTU besikala	2.419,05	2.823,55	% 17		
Zesarea	3.157,92	3.666,55	% 16		
Konizazioa	1.403,81	2.525,16	% 80		
Histerektomia	3.123,00	3.515,44	% 13		
Histeropexia	2.976,26	4.067,71	% 37		
Mastektomia	3.203,46	3.691,09	% 15		
Azaleko injertoa	2.248,97	9.407,22	% 318		
Aldakako protesia	4.983,35	7.072,30	% 42		
Belauneko protesia	4.437,67	7.418,23	% 67		
Hiatoko hernia	3.256,00	5.016,57	% 54		
Hemorroide eszizioa	1.115,40	961,90	-% 14		

Ez da ageri osasun laguntza itunduen tarifak justifikatzen duen kostuei buruzko azterlanik, ez eta zentro pribatuei osasun prestazio beragatik ordaindutako tarifen artean dauden aldeen justifikaziorik ere.

Aztertutako osasun prestazio itunduen tarifak estatuko KPlaren arabera eguneratu dira 2006. urteaz geroztik, hau da, 2006an % 3,70, 2007an % 2,70, 2008an % 4,2 eta 2009an % 1,4.

VI.4 ITUNDUTAKO JARDUERAREN FAKTURAZIOA

Zentro itunduek hileroko fakturaziotan diote O-NOZi emandako osasun laguntza. Fakturan, prestazio mota bakoitzaren unitateko prezioa, zerbitzu kopurua eta guztizkoa zehazten dira.

Lagin batean egiaztatu ahal izan da zentro itunduei dagokien osasun laguntzarako onartutako tarifa ordaindu zaiela.

Unibertsitate Klinikarekin, San Miguel Klinikarekin, Quirón Taldearekin eta Médicis Zentroarekin dauden itunak Prestazioen eta Itunen Zerbitzuak kudeatzen ditu. Zentro horiek artatutako paziente guztien zerrenda bidaltzen dute aipatutako zerbitzura, eta zer laguntza mota eman zaien eta laguntzaren zenbatekoa zehazten da bertan.

Prestazioen eta Itunen Zerbitzuan kontrol ekonomikorako eta kontularitzaren kontrolerako hainbat prozedura ezarri eta aplikatu dira. Zerbitzu horretan, administrazioko bulegariez gainera, osasun alorreko langileak ere badaude, intzidentziak konpontzeaz eta itundutako zentroan emandako osasun laguntza irizpide tekniko eta medikoen arabera ebaluatzeaz arduratzen direnak.

Zerbitzu horretan egiaztatzen da, halaber, itundutako zentroaren gastua ordaindu aurretik, igorritako tarifak itunean ezarritakoei dagozkien, fakturatutako laguntza O-NOZek baimendutako pazienteei eman zaien, paziente guztiek osasun identifikazio-txartela duten, itunaren klausulak aplikatu diren (besteak beste, itundutako tarifiari sartuta dauden edo itunduta ez dauden prestazioak ez fakturatzea) eta osasun irizpideen arabera kontrolatzen dute bideratutako erri bakoitzari dagokion fakturazioa.

Alliance Medical-ekin 2009an izenpetutako itunaren unitate arduraduna Arreta Anbulatorioaren Koordinaziorako Zuzendariordetza zen. Itun horren kasuan, ez da aurretik baimenik edo asistentzia-ordenarik bideratu; aitzitik, pazienteak modu zentralizatuan bidaltzen dira O-NOZetik Zentro itunduetara.

Alliance Medicaiek aurkezten zuen fakturazioa ez zen zentro horretara bideratutako eta bertan artatutako erri buruzko informazioarekin egiaztatzen. Aplikaturiko tarifak aurretik hitzartuak ziren baina ez zen egiaztatzen.

VII. ZENBAIT OSASUN PRESTAZIOEN KOSTUA O-NOZen

VII.1 KOSTUAK KALKULATZEKO METODOLOGIA OROKORRA

Kosten kalkulua egiteko erabilitako metodologiaren deskribapena egin aurretik, nabarmendu nahi dugu zerbitzu guztietan (medikuak, orokorrak, langileak, etab.) dagoela egindako jarduerari eta erabilitako baliabideei buruzko informazio zehatza eta xehea, bai giza baliabideei bai materialei eta ekonomikoei buruzkoa, eta horrek osasun prestazioen kostua kalkulatzeko eta ezagutzeko aukera emango liokeela O-NOZi.

Bestalde, O-NOZeko profesional talde batek kostuen kalkulua dela eta hasitako lana ezagutu dugu, eta, gure ustez, bultzatu egin behar da ekimen hori eta nahastuta dauden zerbitzu guztiek parte hartu beharko lukete zeregin horretan.

Ondoren, O-NOZeko osasun prestazioen kostuen kalkulua egiteko erabilitako prozedura orokorra deskribatuko dugu.

Prestazioaren unitateko kostu estandarra lortu da modu analitikoan, prozesuaren araberrako kostuaren metodologiaren arabera. Era horretara, zentro publikoetako ospitale-zerbitzuetako arduradunek osasun prestazioaren ibilbidea deskribatu digute, eta prestazioaren ibilbidearen fase bakoitzari dagokion kostu zuzena egotzi ahal izan diogu, hau da, parte hartzen duten langileak, kontsumitutako materiala, botikak, arropa zuria, elikadura eta erabilitako ibilgetuaren amortizazioa eta mantentze-lanak.

Nafarroako Osasun Zerbitzuak, Nafarroako Unibertsitate Klinikak, San Miguel Klinikak eta irudi bidezko diagnostikorako Medicis Zentroak aurkeztutako alegazioei erantzunez, aztertutako osasun prestazioei kostu zuzenak lotzeko kontuan hartu ditugun irizpideetako batzuk deskribatzen dira ondoren:

- Langileak: prestazioan parte hartzen duten lanbide-kategoria bakoitzerako kontuan hartu ditugu batez besteko ordu-tasa ponderatua lan egindako egun kopuruagatik, guztizko ordainsari gordinak egotziz (Gizarte Segurantzaren enpresa-kuota barne hartuta eta aparteko egunen ordainsariak kenduta). Langileen kostua lanbide-kategoria

bakoitzak aztertutako prestazioari eskainitako denboraren arabera hartzen da kontuan.

- Material suntsikorrak eta botikak: aztertutako osasun prestazioa zentro bakoitzeko ospitale-zerbitzuko arduradunek erabili dituztela adierazitako guztiak sartzen dira. Produktuak 2009ko batez besteko prezioan sartu dira, eta hori kontsumituta-ko unitateak eta ordaindutako zenbatekoa kontuan hartuta kalkulatu da.

- Laborategiko proba analitikoak: laborategiko langileen kostua eta material suntsikoren eta erre-aktiboen kontsumoa sartzen dira.

- Ibilgetua: amortizazioa kalkulatzeko erreferen-ziatzat hartu ditugu ibilgetuaren erosketa-prezioa, bizitza erabilgarria –funtzionamendu-urte edo -orduen arabera kalkulatu– eta saio-kopuruaren edo saioak edo probak irauten duen denbora. Mantenimenduko gastuetan 2009an indarrean den kontratuaren gastu errealak sartu ditugu.

- Arropa zuria: aztertutako prestazioan erabili-tako oheko arroparen garbiketari zegokionez 2009an indarrean zegoen unitateko prezioa sartu dugu, unitateko edo kiloko; kontuan hartu dugu, halaber, arropa hori zenbatean behin aldatzen den.

- Elikadura: elikaduraren kostuaren kalkuluan kontsumitutako elikagaien gastuak eta sukaldeko langileen kostuak sartu ditugu.

- Belauneko protesia jartzeko ebakuntzaren kasuan, zuzeneko kostuan honako jarduera hauen kostuak sartu ditugu:

- Ebakuntzaren aurretik: bertan sartzen dira traumatologiako lehenengo kontsulta, probak, errebisiorako kontsulta, ebakuntza aurreko azterketa (plaka, elektrokardiograma eta analitika biokimikoa eta hematologikoa), barne-medikuntzako kontsulta, anesthesiako kontsulta eta autotransfusi-oi-poltsa.

- Ebakuntza eta iratzartzeko gela

- Egonaldia ospitaleko gelan, eta horretan sar-tzen da egonaldian egiten den errehabilitazioa.

- Traumatologiako errebisiorako kontsulta

Aztertutako prestazio guztietan O-NOZek eta Lehendakarietzako Departamentuak (Gizarte Segurantzako datuak) 2009. urteari buruz emandako datu errealak aztertu dira.

Zeharkako kostuei dagokienez, hau da osasun prestazioarekin zuzeneko loturarik ez duten gastuei dagokienez, honako hauek hartu ditugu kontuan:

- Zentro publikoaren beraren kostuak (Administrazio-ko langileak, hornidurak eta mantenimen-dua oro har, eraikinaren amortizazioa, besteak beste).

- Honako programa hauei dagozkien Osasun Departamentuko kostuak: zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak, osasun publikoa, osasun laguntza (transplanteak izan ezik), irakaskuntza, ikerketa eta osasun garapena, Nafarroako Osasun Agentzia, zerbitzu nagusiak, laguntza espezializatua (odol bankua eta ambulatorioak) eta Osasun Publiko Institutua (hautemate goiztiarra izan ezik).

Jarduerari egozteko zailtasunak direla eta, banaketa-irizpide hauei jarraitu diegu:

- zentro publikoaren zeharkako gastuak gastu horiek ospitale bakoitzeko guztizko gastuaren barruan duten garrantziaren arabera banatu dira, eraikinaren amortizazio-kostua izan ezik; horiek linealki egotzi ditugu, eta oinarri amortizagarritzat hartu dugu Administrazioaren ondasunen inbentario orokorrean emandako katastro-balioa.

- Osasun Departamentuaren zeharkako kostuak zentro publiko bakoitzeko langileen gastuek osasuneko langileen guztizko gastuen barruan hartzen duten ehunekoan sartu dira.

Prozesu osoaren kostua kalkulatu dugu, baina hitzartutako tarifarekin konparatzeko helburuarekin, Zentro hitzartuaren tarifan sartuta dauden prestazioen kostua baino ez dugu kontuan hartu.

Ondoren, aztertutako osasun prestazio bakoitzerako lortutako emaitzak deskribatuko ditugu.

VII.2 ERRESONANTZIA MAGNETIKOA

Erresonantzia Magnetikoa (RM), erresonantzia magnetiko bidezko tomografia (TRM) edo erresonantzia magnetiko nuklearraren bidezko irudia (NMRI) izenez ezaguna, gorputzaren egiturari eta osaerari buruzko informazioa lortzeko teknika ez-erasokorra da. Informazioa ordenadore bidez prozesatzen da, eta hark aztertutako gorputz atalaren barrualdearen irudi bihurtzen du.

- Baliabideak eta jarduera

O-NOZek hiru RM tresna ditu, Nafarroako Ospitalean (NO) bat, Bideko Ama Birjina Ospitalean beste bat (BAO) eta San Martin Zentroan (SMZ) hirugarrena. 2009an 29.858 RM egin ziren guztira, ehuneko 53 O-NOZen eta gainerakoak zentro pribatuetan.

Honakoa izan zen zentroen 2009ko jarduera:

O-NOZeko zentroak	RM kopurua
Nafarroako Ospitalea	6.294
Bideko Ama Birjina Ospitalea	4.345
San Martin Zentroa	5.076
Guztira.....	15.715

Zentro pribatuak	RM kopurua	Gastua 2009an
Alliance Medical	8.043	817.802
Médicis	4.010	1.016.535
San Miguel Klinika	1.541	385.250
Unibertsitate Klinika	549	218.846
Guztira.....	14.143	2.438.433

- Deribazio-prozedurak eta -irizpideak.

Erresonantziak O-NOZeko mediku espezialistek aurretik aginduta egiten dira, eta baita, 2009. urteaz geroztik eta zenbait erresonantziaren kasuan, lehen mailako arretako medikuek aginduta ere.

Aurreko zentro publikoetako Erradiologiako Zerbitzuen arduradunek adierazi digute 2009an deribatutako RM gehienak bakunak eta konplexutasun txikikoak izan zirela.

Alliancera deribatutako jarduerari dagokionez, 2009an 8.043 erresonantzia egin zirela egiaztatu dugu, % 10 ikerketa bikoitzak izan ziren, eta gainerrakoak, % 90, erresonantzia bakunak.

Hitzordu-sistema zentralizatu erabiltzen da. Pazienteei Nafarroako Ospitaleko, Bideko Ama Birjina Ospitaleko, Ubarmin Klinikako eta Zentro

ambulatorioetako harrera-unitateetatik ematen zaie hitzordua.

Ospitaleetatik eta ambulatorioetatik erresonantzia duten hiru zentro publikoetako agendetara sar daitezke (lehen mailako arretatik San Martin Zentroko agendara baino ezin da sartu), eta baita zentro pribatu hitzartuetako agendetara ere, Unibertsitate Klinikara izan ezik. Agendak erresonantzia motaren arabera antolatzen dira.

Erresonantziarako hitzordua edozein zentrotan (pribatu zein publiko) dagoen lehenengo ordu librearen arabera ematen da.

- Kostua zentro publikoetan

Zentro publikoetan kontrastearekin eta kontrasterik gabe egindako belauneko eta orkatilako erresonantzia bakunen kostu estimatua, zuzenekoa eta zeharkakoa, guztira, honako hau da:

	Belaunekoa			Orkatilakoa			Orkatila edo belaunekoa	
	kontrasterik gabe			kontrasterik gabe			kontrastearekin	
	HNA	HVC	CESM	HNA	HVC	CESM	HNA	HVC
Zuzeneko kostua	55,59	87,34	50,01	55,59	93,21	58,80	128,04	176,29
Zeharkako kostuak	% 12,47	% 14,91	5,45€(*)	% 12,47	% 14,91	5,45€	% 12,47	% 14,91
Kostua, guztira	63,51	102,64	55,46	63,51	109,54	64,25	146,29	207,18

(*) San Martin Zentroari 5,45 euroko kostua egotzi zaio, zentro ambulatorioen eta zeharkako kostuen jardueraren arabera kalkulatu.

(*) Zentro publikoentzako kostu estimatuan azterketarekin batera doan txostena egiteak duen kostua sartu da.

Egindako erresonantziei dagokionez, zentro publikoetako jardueran eragina duten faktore nagusiak eta proba mota bererako kostu aldeak azaltzen dutenak honako hauek dira:

– Jendeari arreta emateko ordutegia: pazienteen arretarako ordutegia Nafarroako Ospitalean 13,5 ordukoa da, San Martin zentroan 13 ordukoa eta Bideko Ama Birjina Ospitalean 12,25 ordukoa.

– Proba egiteko batez besteko denbora: esate baterako, erresonantzia bakunak –eta horietan belaunekoa eta orkatilakoa sartuko lirateke– 20 minutuan egiten dira Nafarroako Ospitalean, Bideko Ama Birjina Ospitalean 30 minutuan (horixe da

Espainiako Erradiologia Elkarteak gomendatzen duen denbora), eta San Martin zentroan 35 minutu behar izaten dira, tresnaren ezaugarriak direla eta.

– Makinen kostuen aldeak, horien mantentze-gastuetan dauden aldeak eta erabiltzen duten ordu kopurua.

• Kostua zentro hitzartuetako tarifekin konparatzea

RM motak zentro publikoetan duten guztizko kostua eta zentro hitzartuetako tarifak konparatzen dira taula honetan.

RM mota	Naf. Osp.	Virgen del Camino Osp.	*San Martin Zentroa	*Alliance	Médicis	S. Miguel Zentroa	K. Unibertsit
Belaunekoa, kontrasterik gabe	63,51	102,64	55,46	105	253,5	250	398,6
Orkatilakoa, kontrasterik gabe	63,51	109,54	64,25	105	253,5	250	398,6
Orkatila edo belauna, kontrastearekin	146,29	207,18			253,5	250	398,6

* Zentro horietan ez da kontrastedun probarik egiten.

Zentro pribatuetako tarifetan ez da kontrastearekin edo kontrasterik gabe bereizketarik egiten.

Ikus daitekeenez, O-NOZeko zentroetako erresonantzia magnetikorako estimatu dugun gastua zentro hitzartuetako tarifena baino txikiagoa da. Alliancekoa da tarifarik merkeena (erakunde horrek unitate mugikor batean egiten ditu erresonantziak, eta ondorioz, ez ditu hainbat kostu ordaindu behar, esate baterako hornidura elektrikoa, segurtasuna, etab.); gainerako zentro hitzartuetan, zentro publikoetako kostuarekiko aldea nabarmena da.⁽²⁾

Bestalde, aipagarria da zentro hitzartuetako tarifen artean dagoen aldea proba bera egiteko.

2011n, O-NOZek deialdi publiko bat egin zuen zentro pribatuekin hitzartzen ziren erresonantzia magnetikoak kanpoan kontratatzeke, eta honako bi lote hauek zehaztu zituen:

– 1. lotea (Iruña eta Lizarrako eremua): 115 euro, urtean 12.000 azterketa egingo zirela kalkulatur.

– 2. lotea (Tuterako eremua): 145 euro, urtean 2.000 azterketa egingo zirela kalkulatur.

Azterketa bakun bakoitzaren prezioa, txostenik gabe, azterketa horrek berak txostenarekin duen prezioaren % 89koa izango da. Azterketa bikoitzek % 60ko errekarua izango dute kasu bakoitzean. Azterketa kontrastedunek –ez dira bikoitzat hartzen– 30 euroko errekarua izango dute, kasu bakoitzean.

Gure ustez, erresonantzia magnetikoen kontratazioa kontratu-prozedura bakar baten bitartez egin gero, aurreztu egingo litzateke, zentralizatu egin baita horiek egitea eta prezio doiagoen bitartez adjudikatzen baitira.

VII.3 HEMODIALISI-SAIOA

Hemodialisia odoletik hondakinak, hala nola potasioa eta urea, gehiegizko ura, ezabatzeke metodo bat da, eta giltzurriek funtzio hori ezin bete dutenean erabiltzen da.

• Baliabideak eta jarduera

O-NOZeko zentro hauetan egiten dira hemodialisi-saioak: Nafarroako Ospitalea, Bideko Ama Birjina Ospitalea eta Tuterako Reina Sofía Ospitalea (RSO). Honakoa izan zen zentro horien jardueraren 2009an:

(2) Aurkeztutako alegazioen arabera osatutako paragrafoa.

ZENTROA	Saio kopurua	Paziente kopurua
VCO	10.615	88
NAO	16.461	123
RSO	5.840	40
Guztira	32.916	251

Hemodialisi-tratamendua Nafarroako Unibertsitate Klinikarekin baino ez da hitzartu. Zentro horrek 7.812 saio egin zituen 2009an, O-NOZeko pazienteei egindako saio guztien ehuneko 19, eta 1.344.965 euroko gastua eragin zuen.

- Deribazio-prozedurak

2009an hitzartutako hemodialisi-saioak 7.812 izan ziren guztira, eta ia gehienak Unibertsitate

Klinika artatzen dituzten pazienteei egin zaizkie; hortaz, zerbitzu hori emateko eskaera zentro hitzartuak izapidetu zuen zuzenean.

- Hemodialisi-saioaren kostua zentro publikoetan eta tarifa hitzartuarekin konparatzea.

O-NOZeko zentroetan 2009an hemodialisi-saio baten kostua kalkulatu dugu, eta honako emaitza hauek lortu ditugu:

	NAO	VCO	RSO
Zuzeneko kostua	146,92	137,76	142,98
Zeharkako kostu berekiak	% 8,00	% 9,19	% 12,89
Osasun Departamentuko zeharkako kostuak	% 4,48	% 5,51	% 4,95
Zeharkako kostuak, guztira	% 12,47	% 14,70	% 17,84
Kostua, guztira	167,86	161,49	174,04

Hemodialisi-saioen iraupena 5,5 ordukoa izan da Nafarroako Ospitalean, 4,5 ordukoa Bideko Ama Birjina Ospitalean eta 5 ordukoa, batez beste, Reina Sofía Ospitalean.

O-NOZeko zentroen artean dagoen kostu aldearen zergati nagusien arrazoi nagusiak bi dira: saioen iraupena aldatu egiten da eta aldeak daude monitoreen eta horien mantenimenduaren prezioen artean.

2009an hemodialisi-saio baterako Nafarroako Unibertsitate Klinikaren tarifa 168,12 eurokoa izan zen, O-NOZen zentroetan estimatutako kostuaren oso antzekoa.

- Kudeaketaren azterketa

Kudeaketari dagozkion alderdi hauek aztertu ditugu:

- Nafarroako Ospitaleko monitoreen mantenimenduaren kostua beste zentro publikoetakoa baino handiagoa da. Zerbitzu hori kanpora ateratzen dago. Gai horri dagokionez, Reina Sofía Ospitaleak hitzarmen bat lortu zuen, zeinaren arabera enpresa hornitzaileak bere gain hartzen duen erostean eta mantentzearen ondoriozko kostua,

eta Ospitaleak, horren truke, gutxieneko material suntsikorra erosi behar du, Ospitalearen material-kontsumoa enpresak eskatutako gutxienekoa baino handiagoa izanik.

- Pazienteen arretarako ordutegiaren antolaketak (13 ordu eguneko Nafarroako Ospitalean, 14 ordu San Martin zentroan eta 12 ordu Bideko Ama Birjina Ospitalean) eragina izan dezake zerbitzuaren jardueran.

- Nafarroako Ospitaleak hornitu gabeko areto bat du Nefrologiako unitatean. Espezialitate horren osasun premien eta -eskaeraren bilakaeraren arabera, aztertu egin beharko litzateke areto hori hemodialisirako erabiltzea komeni den.

Tuterako Reina Sofia Ospitaleak ez du pazienteak zentro pribatuetara deribatzeke ohiturarik, eta 4 posturako prestatutako areto batean egiten ditu saioak; baina beste bi postu prestatu dira, eta horrek kalteak eragin ditu espazio-murrizketaren ondorioz.

- Nafarroak Giltzurriuneko Erien Erregistro bat du, eta bertan sartzen dira gaixotasunak jotako eri kopuruari, biztanlerian duen eraginari, egindako

hemodialisi-saioei eta beste hainbat alderdiri buruzko datu estatistikoak.

Erregistro hori nefrologiako eriek jasotako laguntzaren kalitatea neurtzeko tresna izan liteke, baina osatu egin beharko litzateke beste adierazle batzuekin, hala nola erien odol-azterketen parametroak, botiken batez besteko kontsumoa, etab.

VII.4 TRAUMATOLOGIAKO KONTSULTAK

Traumatologiako kontsultak bi eratakoak izaten dira: lehenengo kontsulta, halakotzat hartzen delarik pazientea espezialistarengana lehenengoz joaten den aldia, eta errebisiorako kontsulta, mediku-

ak haren bilakaera edo proba, ebakuntza, etab. ondorengo egoera aztertzeko hartzen duena.

- Jarduera

2009an 35.766 lehen kontsulta egin ziren traumatologian, guztira, ehuneko lau zentro pribatuetan; eta errebisiorako 62.802 kontsulta egin ziren, ehuneko bat zentro pribatuetan. 2009an hitzartutako traumatologiako kontsulten ondoriozko gastua 298.395 eurokoa izan zen.

2009an zentro publiko zein pribatuetan izan zen kontsulta kopurua honako hau izan zen zentroz zentro:

Zentroa	1. kontsulta	Errebisiorako kontsulta
Zentro publikoak:		
Ubarmin klinika	18.305	31.431
Nafarroako Ospitalea	6.343	14.458
Reina Sofia Ospitalea	5.977	10.149
García Orcoyen Ospitalea	3.788	6.187
Kontsultak zentro publikoetan, guztira	34.413	62.225
Zentro pribatuak:		
Unibertsitate Klinika	1.345	177
San Miguel Klinika	8	400
Kontsultak zentro pribatuetan, guztira	1.353	577

- Deribatze prozedurak eta irizpideak

Tuterako Reina Sofia Ospitaleak eta Lizarrako García Orcoyen Ospitaleak ez dituzte pazienteak traumatologiako kontsultetarako zentro hitzartutara deribatzen.

Ubarminen kontsulten deribazioen kudeaketa harrera unitateari dagokio. Zentro horrek oso paziente gutxi deribatzen ditu zentro pribatuetako kontsultetara, eta bertako baliabideekin artatzea dute irizpide nagusia, bai ohiko lanaldian bai lanaldi ohiz kanpokoan.

Nafarroako Ospitalean eriak deribatze kudeaketa kontsultak onartzeko unitatean egiten da, zentro pribatuetara deribatze irizpideari jarraituz eta itxarote-zerrendari bai ohiko lanaldian bai ohiz kanpokoan bertako baliabideen bitartez kasu egin ondoren, legez ezarritako itxaron epea bete ahal izateko.

Bi zentro publiko horietan, zentro pribatu bateko kontsultara joateko edo zentro publikoan har-

tzeko itxaroten jarraitze aukera eskaintzen diote pazienteari.

- Kontsulten kostua zentro publikoetan

Prestazio horren kostua kalkulatzeko, kontsultaren iraupena eta traumatologiako medikuek agindu ohi dituzten proba edo jarduera ohikoenak hartu ditugu kontuan: erradiografiak, sendaketak, infiltrazioak, igeltsua jartzea, lotailuak jartzea eta odol-analitika.

Kostuaren tarte bat kalkulatu dugu, bai lehenengo kontsultetarako bai errebisioetarako; eta tarte horretako baliorik txikiena langileen kostuari dagokiona izango litzateke, eta baliorik altuenak bisita eta plaka bat eta odol-analitika hartuko luke.

Taula honetan, O-NOZeko zentroetako traumatologiako lehenengo kontsulten eta errebisioein gutxieneko eta gehieneko kostu estimatua erakusten da.

	Ubarmin		Nafarroako Ospitalea (Vianako print.)		Reina Sofia Ospitalea		García Orcoyen Ospitalea	
	Gutx.	Gehi.	Gutx.	Gehi.	Gutx.	Gehi.	Gutx.	Gehi.
1. kontsultaren zuzeneko gastuak	31,47	74,04	25,08	54,16	32,44	51,48	30,26	59,97
Errebisorako kontsultaren zuzeneko kostuak	15,74	58,31	16,72	45,8	16,22	35,26	15,13	44,84
Zeharkako kostu berekia	% 14,09		5,45 €		% 12,89		% 17,30	
Osasun departamentuaren zeharkako kostua	% 4,83		jardueraren arabera zentro ambulatorioetan eta dagozkion zeharkakoak		% 4,95		% 5,32	
Zeharkako kostua, guztira	% 18,92				% 17,84		% 22,62	
1. kontsultaren kostua, guztira	38,81	91,32	30,53	59,61	39,48	62,66	39,11	77,50
Errebisorako kontsultaren kostua, guztira	19,41	71,92	22,17	51,25	19,74	42,92	19,55	57,95

O-NOZeko zentroyen artean dagoen kostu-aldearen arrazoi nagusiak bi dira: kontsultan parte hartzen duten langileak eta tratamenduetan erabiltzen diren materialen prezioen aldea.

- Kostuaren eta zentro hitzartuetako tarifen arteko konparazioa

Ondoren, 2009an zentro pribatuei traumatologiako lehenengo kontsultagatik eta errebisioagatik ordaindutako tarifak agertzen dira, berdinak espezialitate guztientzat, eta baita zentro publikoetan osasun prestazio horietarako kalkulatu dugun kostua ere.

Zentroa	1. kontsulta		Errebisorako kontsulta	
	Gutx.	Gehien.	Gutx.	Gehien.
Zentro publikoak				
Ubarmin	38,81	91,32	19,41	71,92
Nafarroako Ospitalea	30,53	59,61	22,17	51,25
Reina Sofia Ospitalea	39,48	62,66	19,74	42,92
García Orcoyen Ospitalea	39,11	77,50	19,55	57,95
Zentro pribatuak				
Unibertsitate Klinikak	171,82		138,92	
San Miguel Klinikak	113,94		65,11	

Hitzartutako tarifak –bai lehenengo kontsultarako bai traumatologiako errebisioetarako kontsultetarako– prestazio horietarako beretako O-NOZeko edozein zentrotarako kalkulatu ditugun kostuak baino nabarmen handiagoak dira. Beste alde batek, alde nabarmena dago zentro pribatuei kontsultetarako ordaindutako bi tarifen artean.

VII.5 BELAUNeko PROTESIA

Belauneko protesia (PTR) jartzeko prozesu kirurgikoaren bitartez, belauneko giltzadura osatzen duten hezurren ordeztu erretxinazko, metalezko edo material zeramikozko erreproduktzioak jartzen dira.

- Baliabideak eta jarduera

Belauneko protesietarako ebakuntzak honako lau zentro publiko hauetan egiten dira: Ubarmin, Nafarroako Ospitalea, Tuterako Reina Sofia Ospitalea eta Lizarrako García Orcoyen Ospitalea.

2009. urtean 739 ebakuntza egin ziren belauneko protesiak jartzeko, ehuneko 86 zentro publikoetan eta ehuneko 14 zentro pribatuetan. Zentro pribatuetan egindako ebakuntzen ondoriozko gastuak 655.416 eurokoak izan ziren 2009an.

Honako hau izan zen zentroyen jarduera:

Zentroa	PTR kop.
Zentro publikoak:	
Ubarmin	409
Nafarroako Ospitalea	115
Reina Sofia Ospitalea	80
García Orcoyen Ospitalea	33
Zentro publikoak, guztira	637
Zentro pribatuak:	
Unibertsitate Klinika	77
San Miguel Klinika	25
Zentro pribatuak, guztira	102

- Deribatzeneko prozedurak eta irizpideak

Pazienteak zentro pribatuetara deribatzen dira, belauneko protesien ebakuntzetarako araz eza-rrita dagoen 120 laneguneko gehieneko epea bete ahal izateko. Ubarminen zein Nafarroako Ospitalean, pazienteari aukera ematen zaio, itxaroteko

gehieneko epea igaro ondoren, ebakuntza zentro pribatu batean egiteko edo kirurgiarako itxarotere-rrendan jarraitzeko.

Tuterako Reina Sofia Ospitaleak eta Lizarrako García Orcoyen Ospitaleak ez dituzte ebakuntza kirurgikoetarako pazienteak zentro hitzartuetara deribatzen.

- Belauneko protesia jartzeko ebakuntzaren kostua zentro publikoetan

Kostua kalkulatzeko, ebakuntzan egiten diren jarduera guztietan erabiltzen diren baliabideak (giza baliabideak eta materialak) hartu ditugu, hasi ebakuntzaren aurreko lehenengo kontsultatik eta ebakuntza ondorengo lehenengo errebisiorako kontsultaraino.

Belauneko protesia jartzeko ebakuntzaren kostua zentro publikoetan, 2009an, honako hau izan da:

PROZESUA	UB	HNA	HRS	HGO
Ebakuntzaren aurrekoa	360,64	248,14	242,32	247,10
Ebakuntza eta iratzartzeko gela	1.721,04	1.453,02	1.382,29	1.215,32
Egonaldia gelan	1.565,98	1.457,62	1.267,44	1.454,73
Traumatologiako 1. errebisioa	15,74	16,72	16,22	15,13
Zuzeneko kostuak	3.663,35	3.175,49	2.908,27	2.932,27
Zeharkako kostu berekiak	% 14,09	% 8,00	% 12,89	% 17,30
Osasun Departamentuko zeharkako kostuak	% 4,83	% 4,48	% 4,95	% 5,32
Zeharkako kostuen %, guztira	% 18,92	% 12,48	% 17,84	% 22,62
Kostua, guztira	4.518,26	3.628,03	3.539,92	3.789,50

Guztizko kostuan ez da sartzen protesia; 2009an 3.979 eurokoa izan zen protesien batez besteko kostua.

Belauneko protesia jartzeko ebakuntzek zentro publikoetan duten kostuen arteko aldearen arrazoi nagusiak honako hauek dira: ebakuntzaren aurreko azterketarako egiten den proba kopuruaren aldea, barne-medikuntzako zerbitzuen parte-hartzea eta ZIUn egotea (Ubarminen protokoloaren arabera egiten da), ospitale publikoen artean batez besteko egonaldiari dagokionez dagoen aldea, eta egonaldian errehabilitazio-tratamenduan erabiltzen diren baliabideen arteko aldeak.

- Kostuaren eta zentro hitzartuetako tarifen arteko konparazioa

Taula honetan, 2009an zentro hitzartuetan belauneko protesia jartzeko ebakuntza batek izan zuen kostua eta zentro publikoetan ebakuntza horretarako kalkulatu ditugun kostuak agertzen dira.

Zentroa	Kostua/tarifa
Zentro publikoak	
Ubarmin	4.518,26
Nafarroako Ospitalea	3.628,03
Reina Sofia Ospitalea	3.539,92
García Orcoyen Ospitalea	3.789,50
Zentro pribatuak	
Unibertsitate Klinika	7.418,23
San Miguel Klinika	4.437,63

Tarifa horietan ez da jarritako protesia sartzen. O-NOZek adjudikatzen du material horren hornikuntza, eta zuzenean ordaintzen dio hautatuko hornitzaileari.

Tarifa horretan pazientearen gastu guztiak sartzen dira, ospitaleratzen denetik alta ematen zaion arte, ebakuntzaren aurreko eta ondorengo kontsultak, eta ebakuntzaren ondorengo bi hilabeteetan, eta zuzenean harekin lotuta, egin behar diren proba diagnostikoak eta terapeutikoak.

Aipagarria da hitzartutako tarifen eta bi zentro pribatuetakoen arteko aldea, hain zuzen ere, 7.418,23 eurokoa, eta 4.437,63 euroko prozesu kirurgiko beragatik.

Unibertsitate Klinikara deribazio gehiago egiten bada ere (77, 25en aurrean), zentro horrek San Miguel Klinikaren aldean ahalmen handiagoa duelako, ezin justifika daiteke bi zentro pribatu horien arteko tarifa-aldea.

O-NOZeko zentroetan belauneko protesia jartzeko ebakuntzarako kalkulatu dugun kostua, 2009an, zentro hitzartutako tarifena baino txikiagoa da, oro har.

Txosten hau, indarrean den araudian ezarritako izapideak bete ondoren, M^a Asunción Olaechea Estanga kontu-ikuskatzaileak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2011ko urriaren 20an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

OSASUN DEPARTAMENTUAREN ALEGAZIOAK

Nafarroako Comptos Ganberak "Osasun Departamentuak eta beste departamentuek 2008ko eta 2009ko ekitaldietan irabazi asmoa duten erakunde pribatuekin egindako hitzarmen eta itunak" gaiari buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostena igorri dio Osasun Departamentuari, hark azter dezan, eta hala badagokio, alegazioak gauzatu ditzan.

Osasun Departamentuak, Comptos Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legean ezarritakoarekin bat eginez, aipatutako behin-behineko txostena aztertu ondoren, honako alegazioak egin zaizkie bertan adierazitako ondorioei eta iritziei:

1. Txostenean aditzera ematen den moduan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak (O-NOZ) zentro hitzartutara egindako deribazioek oinarri izan dituzte beti subsidiariorotasuna (eskaera gorabeheratsua denean, itxaronaldien bermeei buruzko legea betetzeko zentro hitzartutara deribatu behar da) eta osagarritasuna (O-NOZean ez dauden teknika jakin batzuk erabiltzeko deribatzen denean; besteak beste, organoen transplanteak, Parkinsonaren kirurgia edo PETak egiteko).

2. O-NOZentzat funtsezkoa da jarduera hitzarturen bat edukitzea, eskaeraren jokabidea ez delako uniformea eta ez duelako arazoizkoa ematen sortzen diren gertakizun guztiei erantzuteko bali-

bideez hornitzeko moduan dimentsionatzea zerbitzu publikoak. Izan ere, horrek nahitaez ekarriko luke sistemaren ahalmena gehiegi handitzea, eta horrela gutxitu egingo litzateke eraginkortasuna, etenik gabe erabiltzen ez den ahalmena handitzearen bidetik.

O-NOZek hitzartutako jardueraren garrantzia gutxienekoa da (% 6 ospitaleetako egonaldietan, % 6,76 prozesu kirurgikoetan eta % 1 kontsultertan), baina funtsezkoa da malgutasun-maila nahikoa lortzeko eta laguntzaren alorrean aurreikusita dauden edo ezustean sortzen diren gertaera guztiei eraginkortasunez heltzeko. Hitzartutako jardueraren zama 2009an osasunaren arloko gastu osoaren % 5ekoa besterik ez izateak hitzarmenen erabilera arrazionala egiten dela ematen du aditzera, auzoko autonomia erkidegoetan jarduera hitzartuak zenbateko ehunekoa hartzen duen kontuan hartzen bada batez ere: esate baterako, Euskadiko Autonomia Erkidegoan % 7,46koa da eta Errioxakoan % 6,85ekoa. Eta aldea are nabarmenagoa da Espainiako batez bestekoarekin alderatuz gero: % 9,44 (*Indicadores clave del Sistema Nacional de Salud. año 2010*, Osasun Ministerioa. Kontsumoa eta Gizarte Politika).

3. Osasunaren alorreko jarduera bat hitzartu aurretik, premien eta irtenbideen azterketa egiten da. Are gehiago, Osasuneko Foru Plana eta O-NOZen Plan Estrategikoa alde batera utzita, ez dago hitzarmenak aztertu eta prestazioarentzako irtenbideak, bertako baliabideen bitartez (baliabide berriak erosiz edo daudenak berrantolatuz) bai kanpokoen bitartez, aztertzen dituen inolako plan formalik; baina horrek ez du esan nahi aukeren azterketarik edo barne-baloraziorik ez dagoenik.

Bestalde, aipatzekoa da osasun zerbitzu guztien zuzendaritzek etengabe aztertzen dituztela beren zerbitzu-zorroetan prestazio eta tratamendu gehiago txertatzeko aukerak. Proposamen horiek, oro har, instalazioak eta giza baliabideak behar dituzte. Lehenak aurrekontuaren bitartekoen, zortetzeko mugen, ondorioak jasaten dituen biztanleriaren eta horien eraginkortasunaren arabera lehenesten dira; bigarrenak, berriz, behar bezalako prestakuntza duten langileen disponibilitatearen arabekoak dira. Ildo horretatik, azpimarratzekoa da, esate baterako, orain dela gutxi jarri dela martxan laguntza bidezko ugalketa-zerbitzua –horren ondorioz, indargabe utzi da Quirón Klinikarekin zegoen hitzarmena–, kirurgia torazikoko zerbitzua osatu dela edo O-NOZen zerbitzu-zorroan hezurmuinaren transplantearen zerbitzua erantsi dela –aurretik Nafarroako Unibertsitate Klinikarekin modu hitzartuan eskaintzen zena–.

4. Txostenean adierazitako kostuen kalkulari dagokionez, ez dakigu zer datu erabili diren horiek lortzeko, zer soldata profesional hartu diren erreferentzia gisa, profesional bakoitzarentzat zer denbora kontuan hartu den, aztertutako prozesuan osaera, ordezkapenen kostua kontuan hartu den, absentismoari dagokiona kontuan hartu den, tresnek kontsumitutako energia, etab.; beraz, hori bada ere txostenaren ondorioak gehien baldintzatzten dituen alderdietako bat, hori txostenean ez sartzea muga bat izan da alegazio hauek egiteko.

Deigarria da zein txikia den Nafarroako Osasun Zerbitzuak zuzenean emandako zerbitzuetarako kalkulatu den kostua, batez ere kontuan hartuta bertako profesionalen soldaten maila zein den, edozein erakunde publikoren eraginkortasun-maila orokorra zein den, erabilitako ekipamenduen kostua eta aztertutako probetan jarduten duen profesional kopurua. Are deigarriagoa da kostu horiek edozein zerbitzu profesionalen (medikuntzaren alorrekoak izan edo ez) merkatuko prezioekin konparatuz gero.

Erresonantzia magnetikoaren bidezko azterketaren kostua.

Lortutako balioa oso-oso txikia da. Baita aipatutako txostenean jarraitutako metodologia onartuta ere. Esate baterako, Nafarroako Ospitaleguneko (lehen Nafarroako Ospitalea) ekipoaren kostua, Siemens enpresari lehiaketa publiko bidez erostia, 1.200.000 eurokoa izan zen 2005. urtean. Ekipo horren kontularitza-amortizazioa, Kontularitza Plan Orokorraren arabera, 10 urtekoa da (ekipoaren bizitza erabilgarriarekin pareka daitekeen denbora), hau da, urteko kostua 120.000 eurokoa da. Kopuru horri mantenimenduko kontratua erantsi behar zaio, 2009an 100.000 eurokoa, BEZa barne. Erresonantzia magnetikoaren kudeaketarako egokitutako langile-taldea honakoa izan zen: 2 erradiologo, 2 erizain, 2 ETE, 2 zeladore eta administrazioko bulegari bat. Horren guztiaren urteko kostua 410.000 eurokoa izan zen, gutxi gorabehera, Gizarte Segurantzako enpresa-kuota barne. Kostu horri aldi baterako ezintasunen eta oporren ondoriozko ordezkapenen kostua erantsi beharko litzaioke. Era berean, energiaren kostua hartu behar da kontuan, izan ere, potentzia handiko tresnak izanik eta ordu askoz martxan daudenez, kostu hori handia izaten da. 2009. urtean 6.294 erresonantzia egin zirenez, proba horren zuzeneko kostuaren parte bat –langileen zuzeneko kostuari, amortizazioari eta ekipoaren mantenimenduari dagokiona– 630.000 eurokoa izan zen. Eta gainerako zuzeneko kostuak aplikatu gabe jarraitzen dugu, hala nola energia elektrikoa, klimatizazioa, garbiketa, garbategia, kontsumoko materiala, etab. 2009an Nafarroako

Ospitalea izeneko zentroan 6294 erresonantzia magnetiko egin zirenez, horietako bakoitzaren batez besteko kostua 100 eurokoa izan zen probako. Horri zeharkako kostua eransten bazaio –sinplifikatzeko, erreferentziako txostenean erabilitako irizpide berari jarraitu zaio–, % 12,47 igotzen da zuzeneko kostuei buruz. Horrek guztiak erresonantziako 112,47 euroko kopuru partziala ematen du, txostenean kalkulaturako 63,5 eurotik goragoa.

Konparazioak egiteko, kontuan hartu behar da Alliaceren Unitate Mugikorrek ez diela hainbat kosturi eutsi behar, esate baterako, hornidura elektrikoa (Nafarroako Ospitaleguneko bertako sare elektrikitik hartzen da), segurtasuna, etab. Ospitaleguneko esparruaren barruan kokatuta baitago.

Horrez gainera, aipatu beharra dago, Txostenaren VII.2 puntuan, 32. orrialdean, adierazten denaren kontra, Médicis zentroak egiten dituela kontraste bidezko erresonantziak.

Traumatologiako kontsultaren kostua.

Txostenak zehazten duenaren arabera, “kostu estimatu estandar bat kalkulatu da, non ez diren jaso pazienteari prozesu kirurgikoan nahiz osasun prestazioan arazorik gertatuz gero egiten zaizkion tratamendu eta proba gehigarrien kostua” Hau da, kostu hori ez da batez besteko kostua, baizik eta prozesu horrek eragin dezakeen gutxieneko kostua baizik, hau da, kontsultari, oinarritzko analitika bati eta erradiografia bati dagokiona. O-NOZaren esperientzia eskema honetan bildutakoaren oso bestelakoa da. Pazientea mugitu delako edo jarra egokia hartu ez duelako probaren bat errepikatu beharra alde batera utzita, ohikoa izaten da, proba horiez gainera, azterketa osagarriak egin beharra, hala nola erradiologia konbentzionaleko azterketa osoak, erresonantzia, TAC, ekografia, gammagrafia, analitika edo kontsulta artekoa. Txostenean kalkulurako erabiltzen den protokoloa, hortaz, gutxietsita dago. Puntu honetan komeni da azpimarratzea hitzartutako kontsultak barnean hartzen dituela arrisku horiek eta proba osagarri horiek.

Beste alde batetik, kostu horien eta autonomia erkidegoek argitaratzen dituzten tarifen –legez kostuari egokitu behar zaizkionak– arteko konparazioa eginez gero, beste ondorio bat ateratzen da, hain zuzen ere, txostenean kalkulaturako kostuak izugarri txikiak direla. Esate baterako, erresonantzia batek Andaluziako Autonomia Erkidegoan 468 euroko kostua du (2005ean argitaratutako tarifa/kostua); aldiz, O-NOZeko kostua, txostenaren arabera, 55,46 eta 102,64 euro bitartekoa da. Beste horrenbeste gertatzen da lehenengo kontsulten kostuarekin: Extremaduran 167,36 eurora

iristen da (2007ko urtarrila), O-NOZen berriz, txosteneko azterketaren arabera, 30,53 eta 91,32 euro bitartekoa da kostua.

5. Txostenean aipatu bezala, O-NOZen ez dagoenez kontabilitate analitikorako sistemarik, hitzarmenak negoziatzeko ezin dira zerbitzuen kostuak erreferentziatzen hartu. Halakorik balego, kostu horiek soilik har litezke erreferentzia gisa modu subsidiarioan deribatutako zerbitzuetan, hau da, Bermeen Foru Legeak finkatutako epeak gainditzeagatik deribatutakoetan. O-NOZek ematen ez dituen zerbitzuetarako, noski, ez litzateke halako informaziorik edukiko, nahiz eta oraingoan baino zehaztasun handiagoz kalkulatu daitekeen.

Informazio hori edukita ere, zerbitzu jakin bat baliabide hitzartuen bitartez eman beharrean baliabide berekien bitartez ematea egokia den edo ez erabakitze baina ezingo litzateke erabili delako informazio hori. Eta erabaki hori, aldi berean, beste hainbat gaik baldintzatua egongo litzateke, hala nola aurrekontuaren erabilgarritasuna, langile espezializatuak edukitzea, zorpetzeko mugak eta inbertsio horren lehentasuna beste premia batzuen aurrean, eta horretan guztian, azken batean, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du, hurrenez hurrengo aurrekontuen foru-legeen bitartez.

O-NOZek, edo autonomia erkidegoetako edozein osasun kudeatzaile publikok, bai lehiaketa bidez bai hitzarmen bidez adosten eta ordaintzen dituen tarifek zerikusia dute merkatuarekin, eta begien bistakoa bada ere finkatutako prezioak harremana duela hitzarmena izenpetzen duen erakundearen kostuekin, are nabarmenagoa da bere erreferentzia merkatuko prezioa dela, eskaintzaren eta eskaeraren arteko akordio bat baita. Gogoeta hori askoz ere nabarmenagoa da lehiaketa irekien kasuan.

Gai horri dagokionez, aipatu beharra dago badi-rela hainbat epai judizial adierazten dutenak ondasun baten benetako balioa merkatuak horren truke ordainduko lukeen prezioa dela, eta hori dela, halaber, bere benetako balioa. Nafarroako Foru Komunitatean oso ospitale gutxi daudenez, hitzarmenak ezartzeko prozedura publizitaterik gabeko prozedura hitzartua izan da; eta salbuespen bakarria lehiaketa ireki bidez hitzartutako proba jakin batzuk izan dira.

Hori dela eta, hitzarmenen negoziazioan kontuan hartu dira zentro hitzartuetako tarifa ofizialak, aurreko hitzarmenetan ezarritako prezioak, merkaturako prezioak eta beste autonomia erkidego batzuek argitaratutako prezioak. Kontuan hartzen badugu zentro hitzartuek merkatu nazionalan jarduten dutela, bereziki Nafarroako Unibertsitate Klinikaren

kasuan (bertako jardueraren bolumen nagusia merkatu horretatik dator), bertako tarifak merkatuko prezioen hurbileneakoak direla ondoriozta liteke.

Tarifa horiek beste autonomia erkidego batzuek argitaratuekin konparatu dira. Konparazio-metodo hori asko erabiltzen da ondasunen eta zerbitzuen balioa zehazteko prozedura gisa.

Halaber, azpimarratu beharra dago ospitaleetako hitzarmenak modu orokorrean negoziatu direla, hain zuzen ere, ospitaleak zenbateko konplexutasunez lan egiten duten, zer teknologia duten eta bertako profesionalek zer gaitasun, kalitate eta disponibilitate duten kontuan hartuta. Zenbait ospitaleek larrialdietako zerbitzuak –ZIUak–, guardia espezializatuak, etab. dituzte, eta beste batzuek ez dute halakorik. Horregatik, ez dirudi arrazoizkoa denik zentroetako prozesu jakin batzuk modu bakanduan konparatzea. Eta horri erantzen badiogu eskaintzen diren prestazioak eta ekipamenduen zehaztasuna, zein zentro bakoitzaren energia kontsumoa, erraz aurkituko dugu zenbait zerbitzuren prezioan dauden aldeentzako azalpena.

6. Pazienteak zentro batera edo bestera deribatze bakoitzeko, zenbait faktoreen ondorioz zer gorabehera sor litezkeen kontuan hartzen da –esate baterako, erikortasun handiagoa edo txikiagoa egotea–. Osasunaren alorreko era horretako gogotarik ezear, zentro merkeenetara deribatzen dira nagusiki pazienteak, eta zentro horiek pazienteak hartzeko duten ahalmena izaten da muga bakarra. Edonola ere, itxaronaldien mugak direla-eta pazienteak deribatu behar direnean, prezio merkeeneko zentroek ezin diote beti eskatzen zaionari erantzun.

7. Nafarroako osasun sistema publikoaren zuzendaritza-talde berriak, aurreko ekitaldietan Comptos Ganberak egindako gomendioak kontuan hartuta, neurriak hartu ditu kostuak kalkulatzeko sistema zehatzago bat eta osasun arretaren errealitateari hobeto egokituko zaion eta erabakiak hartzeko kudeaketa-tresna gisa balioko duen sistema bat ezartzeko.

Ildo horretatik, irailaren 23an, Nafarroako Osasun Zerbitzuaren-Osasunbidearen Zuzendari Kudeatzailearen 1899/2011 Ebazpenaren bitartez, talde tekniko bat sortu zen, gure kostuak fidagarritasun handiz neurtzeko sistema bat gauzatzeko helburuarekin. Talde horretako kideek denbora osoz dihardute zeregin horretan. Horrez gainera, taldeak gai horretan eskumena duten O-NOZeko gainerako unitateetako langileen laguntza edukiko du, eta baita behar duten kanpoko laguntza teknikoa ere. Bestalde, adierazi beharra dago legealdi honen helburua dela kontabilitate analitikoko siste-

ma bat zehaztea, kalkuluen fidagarritasuna eta hartutako erabakien zuzentasuna egia izan daitezzen.

Laburbilduz:

Lehenik, azpimarratu beharra dago erakunde publikoekin hitzarmenak egiteko arrazoi nagusia –alde batera utzita herritarrei O-NOZek zuzenean ematen ez dituen zerbitzuak edukitzeko aukera eskaintzea– haren malgutasuna hobetzea dela; era horretara, eskaeraren bariazioei ahalik eta eraginkortasun handienaz erantzun ahal izango zaie, hitzartutako prestazioaren kalitate mailari eutsiz edo hura hobetuz.

Bigarrenik, eta txostenean adierazitako kostuen kalkuluari dagokionez –horixe da maila handi batean horren emaitzak baldintzatzen dituen alderdietako bat–, nabarmendu beharra dago kalkulurako erabilitako datuek (ez ditugu ezagutzen) zein lortutako emaitzek ziurgabetasun handia sortzen digutela, zalantzan jartzen baitute horien konparagarritasuna.

Hirugarrenik, guztiz bat gatoz Comptos Ganberaren txostenarekin O-NOZen kostuen azterketa-sistema zehatzago bat eta osasun arretaren errealitatera egokituago bat ezartzeko premiarri dagokionez; era horretara, fidagarritasun handiagoz neurtuko ditugu gure osasun kostuak eta oinarrizko tresna izango da erabakiak hartzeko. Hori guztia legealdi honen esparruan lortzea da gure helburua.

Eta, azkenik, eskerrak eman nahi dizkiogu Comptos Ganberari Txosten hau egiteko egin duen ahaleginagatik, eta ziur egon dadila O-NOZen oso kontuan hartuko direla osasun sistema publikoaren kudeaketan hobekuntzak ekar ditzaketan gomendio guztiak.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an.

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera

NAFARROAKO UNIBERTSITATE KLINIKAREN ALEGAZIOAK

1. SARRERA

Nafarroako Unibertsitate Klinikak eskerrak ematen dizkio Comptos Ganberari egindako txostenagatik, lagungarria delako Nafarroako Foru Komunitatearen Osasun Kudeaketan gardentasun ekonomikoa hobetzeko zereginen, eta, aldi berean, osasunaren alorreko hornikuntzaren eraginkortasuna hobetzen lagunduko dien tresna bat ematen dielako erakundeei.

Txostenean aipatzen diren beste zentro hitzartuetan ez bezala, ohartarazi beharra dago Nafarroako Unibertsitate Klinikak irabazi asmorik gabeko erakunde bat dela, hau da, ez duela banatzeko onurarik sortzen. Lor litezkeen kontularitzako soberakin guztiak KUNaren laguntzaren eta ikerketaren alorreko jarduerak hobetzera bideratu behar dira, nahitaez; hortaz, pazienteen zuzeneko onurarako izaten dira horiek.

Gauza jakina denez, eta txostenean ere aipatzen da nolabait, Nafarroako Unibertsitate Klinikak Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin aritu da lankidetzan, eta aurretik Insaludekin, orain dela 50 urte Klinikak abian jarri zenetik. Lankidetzan horri esker, herritar nafarrek doako laguntza eduki dute ospe handiko ospitale batean, eta tratamendu berritzaileak eduki dituzte, beste autonomia erkidego batzuetako herritarrek baino lehen. Beste alde batetik, lankidetzan horri esker Klinikak handitu egin du laguntzaren alorreko jarduerari dagokion bolumena. Gogoan hartu behar da Klinikaren III. fasea Insaludetik deribatutako erientzat eraiki zela bere garaian, 1983an Klinikak erakunde horrekin zuen hitzarmena eten baino lehen.

Klinikak Nafarroako Osasun Zerbitzuari egindako fakturazioari buruz jasotako datuak zuzenak dira.

Azken urteetan, Klinikaren zuzendaritzak Osasuneko kontseilariarekin lankidetzan jardun du hurrenez hurren izan diren hitzarmenen esparruaren barruan. Klinikak zerbitzu-zorro bat eskaini dio Foru Komunitateari, 2008ko eta 2009ko ekitaldiei buruzko txostenean adierazten den bezala: jardueraren % 75 Nafarroako Osasun Zerbitzuak eskaintzen duen jardueraren osagarria izan da, eta % 25 Osasun Zerbitzuak bere zentroetan eskaintzen dituen jardueren antzekoetan oinarritu da.

Klinika prest egon da, beti, edozein egoera larri edo zailetan jarduteko, eta hala erakutsi zuen A gripearen epidemia sortu zenean, eta beste hainbat eta hainbatetan. Ildo horretatik, azpimarratu nahi da Nafarroako Osasun Sistemaren barruan dagoela Klinikak, eta Foru Komunitateko pertsona guztien osasuna hobetzea bilatzen duela.

Klinika prest egon da, beti, edozein egoera larri edo zailetan jarduteko, eta hala erakutsi zuen A gripearen epidemia sortu zenean, eta beste hainbat eta hainbatetan. Ildo horretatik, azpimarratu nahi da Nafarroako Osasun Sistemaren barruan dagoela Klinikak, eta Foru Komunitateko pertsona guztien osasuna hobetzea bilatzen duela.

Klinika prest egon da, beti, edozein egoera larri edo zailetan jarduteko, eta hala erakutsi zuen A gripearen epidemia sortu zenean, eta beste hainbat eta hainbatetan. Ildo horretatik, azpimarratu nahi da Nafarroako Osasun Sistemaren barruan dagoela Klinikak, eta Foru Komunitateko pertsona guztien osasuna hobetzea bilatzen duela.

II. AZTERKETAREN MUGAK

Aurretik aipatu bezala, Nafarroako Unibertsitate Klinikak oso modu positiboan baloratzen du Comptos Ganberaren txostena. Txostenaren 5. orrialdean modu berezian aipatzen dira osasun kostuak kalkulatzeko dauden muga nagusiak.

– O-NOZen kontabilitate analitikorik eza

– Zeharkako kostuak egozteko informazio homogeneorik eza

– Kalkulatutako kostua prozesu teoriko bati dagokio, prozesu jakin bati jarraitzen dioten paziente guztientzako gutxieneko jarduerak erreferentziatzen hartzen dituen, eta ez pazienteek jarraitzen duten prozesu erreal bati dagozkionak.

Muga horiek, gure ustez, eragotzi egiten dute prozesuek O-NOZen duten kostu erreala ezagutzeari, baliogabe uzten baitute prozesu horiengatik zentro hitzartuei ematen zaizkien tarifekin egindako konparazioa. Klinikaren esperientziaren arabera (kostuen kontabilitate analitiko du), aldakortasun handia dago prozedura bakoitzean osasun jarduerari dagokionez, baita prozedurak oso erraza ematen duenean ere; beraz, egindako estimazioak ez du balioa.

Eskertzekoa izango litzateke jardueren kostua kalkulatzeko oinarriko zer parametro erabili diren kontuan hartzen duen informazioa edukitzea. Ez da azaltzen zein diren kostuak izateko arabera, kostua egoteko irizpideak, unitateei eta jarduerari zer kostu egokitu zaien, gastuak zer jarduerari dagozkien, aztertutako prozesuen konposizioa, etab. Informazio hori gabe ezin da azaldu ezer objektibotasunez baloratu.

Edonola ere, eta Comptos Ganberak aurkeztutako kalkulueterako baliatutako metodoaren deskribapenik egin ez denez, “San Juan de Dios zentroarekin hitzartutako jardueraren kostuen azterketaren analisiari buruzko txostena” izeneko agirian erabilitako bera izan dela pentsatzen dugu. Han deskribatutako metodoak, errealitate hurbiltzeko ahalegina egiten badu ere, hainbat baieztapen ditu, gure ustez, pazienteen prozesu erreala benetako kostua kalkulatzeari eragotzen dutenak:

Azterketan onartzen da ez dagoela kostu errealik amortizazioen kalkulua egiteko, ez dagoela inbentariarik NOZen, erabilitako balio teorikoak erosteko edo berritzeko balioetatik urrun daudela (esate baterako, kastastroari dagokiona), zeharkako gastuak ezagutzeko zailtasunak, horiek zuzen egoteko irizpide egokirik eza, etab.

Eri batek laguntza-prozesu batean jarraituko lukeen protokolo teoriko baten definizioan, dagokion zerbitzuko kideekin batera, oinarritzen da azterketa. Osasunaren alorreko kudeatzaileek badakite gutxi direla laguntza-prozesu teorikoari jarraitzen dioten eriak, izan ere, eri bakoitzari behar dituen jarduerak egiten zaizkio, eta ez protokolo teoriko batean diseinatuak. Medikuntzak berezkoa duen aldakortasun horrek zaildu egiten du erien arreta eta osasun zentroen kudeaketa, eta, ondorioz, baita prozesuen kostuen ezagutza ere.

Osasunaren alorreko jardueren kostu errealen kalkuluan sartu ez direnez eri bakoitzarekin erabilitako osasun jarduerak, materialak eta botikak, edo gutxienez horien metatuarena, azterketan lortutako kopuruak, kasurik onenean, DLT bidez lortutako kostuen fidagarritasun bera dute. Hala eta guztiz ere, azken horiek dira, muga jakinak badituzte ere, Osasun Ministerioak osasun zentroak kudeatzeko erabiltzen dituen tresnak Espainian, eta herrialde garatu gehienetan ere hala dira.

III. OSASUN-TARIFAK NAFARROAKO UNIBERTSITATE KLINIKAN

Nafarroako Unibertsitate Klinikak berdintasunez artatzen ditu eri guztiak, edozein dela ere laguntza finantzatzen duena: Nafarroako Osasun Zerbitzua, aseguru-etxe nazionalak edo atzerriarrak edo eria bera.

3.1 Itunak eta lehiaketak

Hainbat zentro hitzartuk eskaintzen dituzten jardueren tarifak konparatzeko ezinbestekoa da itunek eta lehiaketek duten helburua ezagutzeari.

O-NOZek Unibertsitate Klinikarekin duen Itunak O-NOZetik Unibertsitate Klinikara deribatutako pazienteekin egindako ekimenetan aplikatu beharreko tarifen adostasuna baino ez du eragiten. Iria edozein patologia, prozesu oso edo horien parte bat, modu autonomoan edo Nafarroako Osasun Zerbitzuaren mendeko beste zentro batzuekin lankidetzan, har dezakeen zentro batekiko ituna da. Edonola ere, ez da O-NOZek deribatutako duen jardueraren bolumenik zehazten, ezta bolumen estimaturik ere. Besterik gabe, prezioak hitzartzen dira eta O-NOZek erabakitzen du, bere irizpideen arabera, eriak zentro horretara bidaltzea.

Klinikak hitz ematen du gaixo horiek kalitate-irizpideen arabera eta bizkor hartuko dituela, baina ezin du O-NOZekin hitzartutako ustezko eskaera bati egokitzeko aukera emango liokeen baliabideen plangintzarik egin. Zentroak, hortaz, edozein unetan edozein patologia hartzeko prest egon behar du, ziurtatuta eduki gabe arreta hori egin beharko duen. Prest egon behar hori oso garestia da Klinikarentzat, eta kostu horren parte bat baino ez da deribazioa egiten duen zentrori transmititzen.

Lehiaketak, erresonantzia magnetikoari dagokiona esaterako, kontrako planteamenduan oinarritzen dira. O-NOZek jardueraren egonkorra egongo dela bermatzen du denbora tarte jakin batean, zenbaitetan baita hainbat urtetakoa ere, eta zerbitzua emango duten zentroek baliabideen plangintza eta esleipen egoki bat egin ondoren egin dezakete eskaintza, ziurtatu egiten baitaio jardueraren.

Aplikatuko diren tarifak, beraz, jardueraren plan-gintzarik egin gabe baino pixka bat merkeagoak izan litezke.

Beste alde batetik, ezinbestekoa da azaltzea zentroetarako deribazioa ez dela beti baldintza berberetan egiten. Zenbait zentroan gaixoak irudiko proba bat egiteko deribatzen dira, zenbaitetan medikuaren txostenik gabe. Deribazio automatiko eta zentralizatu hori ez da Nafarroako Unibertsitate Klinikara egiten. Zentro horretara beren patologiarentzat erabateko laguntza jasoko duten gaixoak bidaltzen dira; laguntza horren barruan, gerta liteke pazienteak erresonantzia magnetiko bat behar izatea, eta zenbait kasutan, Itunak horretarako aukera ematen duenean, osagarri gisa fakturatu liteke, baina beste kasu askotan ez zaio Nafarroako Osasun Zerbitzuari fakturatzeko: 2009. urtean 1.086 erresonantzia-azterketa egin zitzaizkien NOZeko pazienteei. Txostenak azaltzen duenaren arabera, 549 baino ez ziren fakturatu. Gainera, % 5 baino ez dira erresonantzien itxarote-zerrendaren arabera deribatutako gaixoei egindako azterketak; gainerakoak, erien tratamenduaren barruan egin ziren.

Hori da lehenengo arrazoa adierazteko ez duela zentzurik Unibertsitate Klinikak Itun baten barruan eta eri baten tratamendu integral baten parte gisa NOZari eskaintzen dizkion tarifen eta beste zentro batzuek jarduera bermatuaren arabera eta proba batzuetarako lehiaketa baten esparruan eskaintzen dituen tarifen arteko konparazioak. NOZeko eriei Klinikari egindako erresonantzia kopuruaren bitartez (txostenean jaso) egiaztatu liteke hori: Nafarroan 29.858 erresonantzia egin ziren, eta horietatik 549, hau da, guztizkoaren % 1,8, laguntza-prozesu baten barruan egindakoei dagozkie.

3.2 Erabilitako baliabideak

Zentroen arteko aldeak azaltzeko ezinbestekoa da, halaber, zentro bakoitzak jarduerak egiteko erabiltzen dituen baliabideei kasu egitea. Txostenean O-NOZeko zentroei buruz azaltzen diren datuetan ere ia-ia % 100eko kostu-aldeak daude zentro batzuetatik besteetara, eta Comptos Ganberaren txostenak berak justifikatzen ditu (31. orrialdea). Justifikazio ugari aurki daitezke, hainbat zerbitzu-enpresaren artean gertatzen den bezala.

Lehenik, ekipoen kalitateen arteko aldea dago: ez dira berdinak 0.2ko eremu magnetikoko Teslas baten erresonantzia baten kostuak, esate baterako Doctor San Martín Osasun Zentrokoa, eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko 1.5 Teslas ekipoarenak. Aldea dago erresonantzia egiteko eta txostenean esku hartzen duten profesionalen kopuruan eta

horien produktibitatean. Makina horiek ez dira denak lokal mota beretan egoten, etab.

Hori bera gertatzen da hitzartutako zentroen artean ere. Inor ezin da harrutuko kamioi batean egiten proba baten kostua eta erresonantziako bi ekipo 1.5 Teslas eta 3 Teslas ekipo bat dituen espezializazio handiko ospitale batean egiten denarena desberdinak direlako, tresna horiek ezin baitaitezke konparatu ere egin beste zentro hitzartuokorekin.

Bestalde, aintzat hartu behar da zenbait enpresa hitzartutan ezin dela erresonantziarik egin kontrastearekin. Azterketa horiek Nafarroako Unibertsitate Klinikari egiten dira, proba hori egitean sor litekeen edonolako erreakziori aurre egiteko baliabideak baititu.

Hori bera gertatzen da Nafarroako Unibertsitate Klinikari O-NOZek Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako kontsultetan ikusteko edo belau-neko protesi bat jartzeko ebakuntza kirurgikoa egiteko deribatutako gaixoak artatzeko erabiltzen diren baliabideekin, bai giza baliabideekin bai baliabide materialekin. Erizaintzako ratioak oheko eta horien espezializazio-maila, medikuek beren eriei eskaintzen dieten denbora, zentroaren ziurtagiria mundu osoan onartutako iparamerikar estandarren arabera, erien segurtasun-programak, talde teknikoaren eta giza taldeen etengabeko eguneratzea, kirofanoetako hornidura eta ekipamendu osagarria, erien erabateko arretarako orientazioa, etab. ezin kopara daitezke beste edozein zentro hitzartutako erabiltzen dituen baliabideekin. Beraz, kostuek ezindu dute inondik ere antzekoak izan.

Uste osoa dugu pazienteek antzematen dutela baliabide horien erabilera, izan ere, Bermeen Legeak finkatutako itxarote-zerrendako mugak gainditu ondoren, pazienteek nahiago dute Nafarroako Unibertsitate Klinikari ebakuntza egin, zain egon edo beste zentro hitzartu batzuetara desbideratzea baino. Eta hala ematen dute aditzera Nafarroako Unibertsitate Klinikari kanpoko enpresa batek erabiltzaile horiei 2010. urtean egindako gogobetetze galdetegiek (ikus 1. eranskina).

Edonola ere, zentro hitzartuen arteko kostuen aldea azaltzeko nahikoa da Comptos Ganberaren "San Juan de Dios zentroarekin hitzartutako jardueraren kostuen azterketari buruzko analisiaren txostena," zeinetan baieztatzen hauek egiten diren: "artatutako kasuistika edo zentro baten espezialitatearen konplexutasunaren ondorioz, baliabideen kontsumoa ezin da konparatu" edo "1997an Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasuneko Ministerioak lan egin zuen pisuak (DLTei dagozkie-

nak) Espainiako errealitatera egokitzeko; horren ondorioz, ospitale-egitura bakoitzeko neurketa batzuk lortzen dira, eta 4 mota bereizten dira ohe kopuruaren arabera.”

3.3.Tarifa-sistema.

Comptos Ganberaren dokumentuak lau proba zehatzen tarifei erreferentzia egiten badiete ere, gogoan eduki behar da Nafarroako Unibertsitate Klinikak Nafarroako Osasun Zerbitzuari eskaintzen dion tarifa-sistema.

- **Kontsultak.** Txostenean azaldu bezala, Klinikak tarifa bakarra du lehenengo kontsultarako eta beste bat, txikiagoa, errebisioetarako. Txostenean aipatzen diren lehenengo kontsultek zein errebisioetarako kontsultek tarifa bera dute, pazienteen patologia zein den kontuan hartu gabe. Hori garrantzi handikoa da, izan ere, Nafarroako Osasun Zerbitzuentzat kostua berdina da pazienteen kontsulta soil batera bidaltzen denean –medikuaren denbora gutxiago behar duena eta proba osagarri gutxiagorekin– eta espezializazio batera joaten denean –denbora gehiago eta analitika ugari, ezin faktura daitezkeen irudi-probak, etab.–. Kirurgia Ortopediko eta Traumatologiako kontsultei buruzko emaitza ematen duen txosten horrek berak oso bestelako ondorioak emango lituzke Onkologia edo Barneko Medikuntzako kontsultei dagokienez.

- **Erresonantzia magnetikoa.** Klinikak tarifa bakar bat du proba horretarako, kontuan hartu gabe erresonantzia soila, bikoitza edo hirukoitza den. Nahiz eta aztertutako kasuan, hau da, orkatilako erresonantziaren kasuan, konparazioak Unibertsitate Klinikaren kalterako izan; azterketa bizkarrezurreko erresonantzia batekin egin izan balitz (zerbikala, dortsala eta gerrialdekoa), azterketa Unibertsitate Klinikaren egitearen edo kamioi batean egitearen arteko tarifa-aldea ez litzateke txostenean azaldutakoa izango. Izan ere, Klinikaren belauneko eta orkatilako erresonantziak O-NOZek finantzatutako gaixoei egindako guztien % 16 baino ez dira. Beste alde batetik, txostenean adierazten den bezala, Unibertsitate Klinikaren tarifaren barruan sartzen da kontraste paramagnetikoa, eta zenbait kasutan, 180 eurora irits liteke, eskatutako azterketa motaren arabera.

- **Belauneko protesiak jartzeko kirurgia.** NOZek eskatuta, Unibertsitate Klinikak forfaitak sartu zituen bere tarifetan, eta horietan hitzartzen da ebakuntza egiten duen zentroak hartzen duela bere gain, ordainketa jakin baten truke, pazientearen prozesuan gertatutako edozein aldaketa, sor litezkeen zailtasunak, etab. Ez bada ezagutzen ere Comptos Ganberak kostuaren arabera kontuan hartutako protokoloa zentro publikoetan, gertagaitza da pazienteek behar izan dituzten jarduera medikoen, materialen eta botiken benetako aldakortasuna kontuan hartzea; Unibertsitate Klinikak bermatutako forfaitetan, ordea, kontuan hartzen da hori. Beste alde batetik, ez da adierazgarria hitzartutako zentroetara deribatutako jarduera kirurgiko osoaren kostuetatik ondorioak ateratzea % 9 baino ikuskatu gabe (5. orrialdea).

- **Hemodialisia.** Ikus daitekeenez, horixe da O-NOZeko zentroetarako kalkulaturako kostuaren tarifarik antzekoena. Baina hori ez da halabehararren ondorioa, izan ere, hemodialisiak aztertutako beste prozesuak baino aldakortasun txikiagoa du. Hemodialisi-tratamenduak itxiak dira, aurrez ikus-teko modukoak, eta, gainera, gaixoei beste edozein jarduera baino denbora tarte luzeagoan hartzen dituzte gure zentroan. Era horretara, O-NOZek jakinarazi diezaioke Unibertsitate Klinikari urtean era horretako zer zerbitzu behar izango duen, eta horrek erraztu egiten dio gure zentroari zerbitzu horiek emateko baliabideen plangintza. Kostuak, beraz, jarduera hori bera egiten duten zentro publikoen antzekoak izan litezke.

- **Aipatutako txosten berrian kostuak DLT bidez kalkulatzeko onartzen ez bada ere, nahiz eta jakin Osasun Ministerioaren erreferentziazko sistema dela hori eta, hortaz, Espainiako ospitale guztiek erabiltzen dutela ospitaleratze prozesuen kostuak kalkulatzeko eta tarifak finkatzeko (denek eman behar dizkiote datu horiek Ministerioari, osasun gastu erreala neurtzeko), 2009ko Espainiako ospitaleen txosteneko 27. orrialdean bildutako prozeduren kostuak txertatzen dira, eta Klinikaren tarifekin eta O-NOZek osasun zerbitzuaren babesean ez dauden erabiltzaileei aplikatzen dizkien tarifekin (2010eko irailaren 22ko NAO n jasoak) konparatzen dira:**

KONTSULTAK	O-NOZen TARIFAK ZERBITZUAK EMATEKO 2010 ¹	UNIBERTSITATE KLINIKAREN TARIFA 2009
1. Kotsulta	220,00	171,82
Errebisorako kotsulta	135,00	138,92
OSPITALERATZEA	O-NOZen TARIFAK ZERBITZUAK EMATEKO 2010 ¹	UNIBERTSITATE KLINIKAREN TARIFA 2009
Ospitaleko egonaldia, lehenengo 9 egunetan	585,00	366,72
Ospitaleko egonaldia, hamargarren egunetik aurrera	585,00	275,61
Egonaldia ZIU eta Pediatriako ZIU	1.315,00	1.098,68
DIAGNOSTIKORAKO PROBAK	O-NOZen TARIFAK ZERBITZUAK EMATEKO 2010 ¹	UNIB. KLIN. TARIFA 2009
Erresonantzia magnetiko bakuna	309,04	398,87
Erresonantzia magnetiko bikoitza	463,57	398,87
Erresonantzia magnetiko hirukoitza	566,56	398,87
Erresonantzia kontrastearen plusa	154,51	Kosturik gabe O- NOZentzat
OTA	240,64	151,92
Polipektomia endoskopikoa	508,63	896,07
Mamografia	149,71	86,81
Anestesia plusa	175,12	128,87

1 Iturria: Maiatzaren 3ko 882/2010 Ebazpena. 2010eko ekainaren 11ko 71. NAO.

UNIBERSITATE KLINIKAN ARTATUTAKO KASUISTIKA ELKARTZEA FORFAIT JAKINEI ESLEITUTA
 (APDLTv23, 2009. urtea)

KIRURGIAKO PROZESUAK (FORFAIT)	DLT	NKU ALTAK 2009 GAIXOAK O-NOZ	O-NOZEN TARIFAK ZERBITZUAK EMATEKO 2010 ¹	DLT NAZIONALAREN BATEZ BESTEKO KOSTUA 2009 ²	NKUaren TARIFA 2009
Tiroidektomia	290-Tiroidesi buruzko prozedura	13	3.539,19	4.723,50	4.778,01
	289-Paratiroidesi buruzko prozedura	2	4.110,25	4.189,62	4.778,01
Trabekulotomia	042-Begi bameko prozedurak, erretina, irisa eta kristalinoa izan ezik	0	3.932,96	3.559,12	1.154,43
Zistektomia	341- Zakilari buruzko prozedura	1	5.899,26	4.109,70	10.863,11
Nefrektomia	303- Prozedurak giltzurrian, ureterean eta maskuriko prozedura handiagoak maskurian, neoplasia bidez	2	9.942,11	8.843,12	6.533,06
	304- Prozedurak giltzurrian, ureterean eta maskuriko prozedura handiagoak maskurian, ez neoplasia bidezkoak konplikazioekin	3	8.809,52	8.173,15	6.533,06
	567- Giltzurriko eta gemu-traktuko prozedurak, konplikazio handiko giltzurriko transplanteak izan ezik	1	23.094,12	13.419,69	6.533,06
Maskuriko RTU	310- Prozedura transuretralak, konplikazioekin	1	4.690,84	4.126,58	2.823,45
	311- Prozedura transuretralak, konplikaziorik gabe	3	2.941,02	3.104,89	2.823,45
Zesarea	370- Zesarea konplikazioekin	1	3.975,45	3.086,65	3.666,55
	371- Zesarea konplikaziorik gabe	1	3.183,51	2.784,74	3.666,55
	651- Arrisku handiko zesarea, konplikaziorik gabe	2	3.861,53	3.917,23	3.666,55
Konizazio	Pazienterik gabe 208an eta 2009an	0			2.525,16
Histerektomia	356-Emakumeen sexu-aparatua berritzeko prozedurak ⁴	1	3.504,03	4.069,21	3.515,44
	358-Prozedurak uteroan eta eranskinetan, kartzinomagatik in situ eta prozesu ez gaiztoa, konplikazioekin ⁵	1	5.126,73	5.438,46	3.515,44
	358-Prozedurak uteroan eta eranskinetan, kartzinomagatik in situ eta prozesu ez gaiztoa, konplikaziorik gabe ⁶	4	4.021,61	4.220,19	3.515,44
Histeropexia	Pazienterik gabe 2008an eta 2009an	0			4.067,71
Mastektomia	Pazienterik gabe 2008an eta 2009an	0			3.691,09
Azaleko injertoa	008-Prozedurak nerbio eranealetan eta periferikoetan eta beste prozedura kirurgikoak nerbioetan, konplikaziorik gabe	1	5.829,30	5.419,67	9.407,22
	268-Prozedura plastikoak azalean, larru azpiko ehunean eta bularrean	1	3.560,80	5.599,31	9.407,22
	564-Prozedurak azalean eta bularrean, konplikazio handiekin	1	6.515,74	12.436,91	9.407,22

	786-Prozedura handiak buruan eta lepoan, neoplasia gaiztoagatik ⁷	1	14.764,45	14.155,41	9.407,22
Aldakako protesia	558-Gihar-hezurdurako prozedura nagusia, konplikazio handiekin	5	23.895,95	14.777,73	7.072,30
	817-Aldaka aztertzea edo aldatzea, konplikazioengatik	4	15.628,19	10.589,12	7.072,30
	818-Aldaketaren aldaketa, konplikazioengatik izan ezik ⁸	37	13.212,81	7.047,82	7.072,30
Belauneko protesia	209- Giltzadura nagusia aldatzea, aldaka izan ezik, eta atal txikia berriro ezartzea, konplikazioengatik izan ezik	68	12.012,08	6.330,04	7418,23 *
	471- Prozedura nagusiak giltzadura txikietan, alde bikoia edo anizkuna	1	22.573,60	18.612,90	7.418,23 *
	558-Gihar-hezurdurako prozedura nagusia, konplikazio handiekin	3	23.895,95	14.777,73	7.418,23 ·
	789- Belauna aztertzea, aldatzea eta beheko atala berriro jartzea eta giltzadura nagusia, aldaka izan ezik	4	12.804,02	9.379,90	7.418,23 ·
Hiatuko hernia	585-Prozedura nagusia urdailean, esofagoan, duodenoan, heste arinean eta lodian konplikazioarekin edo komorbiditatearekin ¹⁰	2	22.097,78	19.725,04	5.016,00
	157-Prozedurak uzkie eta enterostomia, konplikazioekin	5	4.750,91	4.110,93	961,90
Hemorroideen zatiketa	158-Prozedurak uzkie eta enterostomia, konplikaziorik gabe ¹¹	55	2.413,55	2.167,21	961,90
	267-Uzkiaren inguruko prozedurak eta gaixotasun pilonidala ¹²	1	2.204,76	2.072,58	961,90

1 Iturria: Maiatzaren 3ko 882/2010 ebazpena. NAOren 71. akta, 2010eko ekainaren 11koa.

2 Iturria: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Osasun alorreko Informazio Institutua. Alten erregistroa - CMBD

3 Kataratak + LIO forfaitean ere sartu da pazientea. 2008koa da. 2009an ez zen pazienterik izan forfait honetan

4 Zistozelea konpontzeko forfaitean ere sartu da pazientea.

5 Zistozelea konpontzeko forfaitean ere sartu da pazientea.

6 Bi paziente zistozelea konpontzeko forfaitean ere sartu dira.

7 Laringektomiako eta lepoko disezio erradikaleko forfaitean ere sartu da pazientea.

8 Finkatzeko materiala kentzeko forfaitean ere sartu dira bi paziente.

9 Finkatzeko materiala kentzeko forfaitean ere sartu da pazienteetako bat.

10 Kolezistektomia laparoskopikoaren forfaitean ere sartu da pazienteetako bat.

11 Esfinterotomiako forfaitean ere sartu dira bost paziente, eta baita uzkieko fistula bat konpontzeko forfaitean ere.

12 Kiste piloidalaren eszizioaren forfaitean ere sartu da pazientea.

* Protesiaren kosturik gabe

Taulan, tiroidektomiako forfaitean ez da sartu ospitaleratze episodio berean bihotzaren transplante bat izan duen paziente bat.

Taulan ez da nefrektomia forfaitean sartu ospitaleratze episodio berean giltzurrinaren transplante bat izan duen paziente bat.

Gogoan hartu behar da NAO n argitaratutako tarifak, arauz (Arau Administratiboan 5. artikulua) O-NOZeko prozesuen kostuen kalkuluan oinarrituta daudela.

Taula hau aztertuta ondoriozta daiteke txostenean aipatutako proba eta forfait kirurgiko gehienetan, egonaldiengatik fakturatutako jarduera guztietan eta lehenengo kontsulta guztietan, Unibertsitate Klinikako tarifak O-NOZeko tarifak baino txikiagoak direla, kostuetan oinarrituta, eta orobat Osasun Ministerioak jarduera horietarako kalkulaturako kostuak baino txikiagoak direla.

Halaber ondorioztatzen da NOZek erabilitako kostuak hurbilago daudela Ministerioak kalkulaturatik Comptos Ganberak modu teorikoan kalkulaturatik baino.

IV. ITUNTZEAREN EGOKITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA

Osasun publikoaren eta zentro hitzartuen arteko lankidetzaren ezinbesteko tresna da kudeaketarako, eta Osasunaren Sistema Nazional osoan ezarri da. Lankidetzaren horren abantailak agerikoak dira, eta bi eratako hobekuntzak lortzea da horien oinarria:

– Eraginkortasun operatiboa

- Zenbait jarduera modu eraginkorragoan egin litezke funtzio publikoaren beraren antolamenduesparrutik kanpoko egitura espezializaturatik.

- Osasun arloko gastua aldatu egiten da.

- Kliniketako jardueraren kantitatearen eta kalitatearen kontrola errazten du.

– Eraginkortasun marjinala

- Eraginkortasuna hobetu egiten da, aukera ematen duelako puntako eskaera-aldiei erantzuteko, ekipamenduetan, eraikinetan edo langileetan etengabe inbertsioak egiten jardun beharrik gabe; bestela, sistemaren gehiegizko gaitasuna oso garestia izango bailitzateke.

- Diagnostikoak eta tratamendu berritzaileak sistema publikoan hartuko diren erabaki aurretik edukitzeko aukera ematen du.

Nafarroan, Comptos Ganberaren datuen arabera, txosten honetan ikuskatutako jarduera hitzartuak osasunaren alorrean egiten den guztizko gastuaren % 3 baino ez du osatzen. Horri 2009an San Juan de Dios Ospitaleak izan zuen jarduera erantsen bazaio (18,9 M €, Comptos Ganberaren azterketaren arabera), hitzartutako jardueraren fakturazioa guztizko fakturazioaren % 5 ingurukoa da, Espainia osokoaren oso azpitik, Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioaren iturrien arabera

% 9,44koa baita (OSNaren Adierazle Giltzarriak. Fitxa teknikoak, 2010. urtea).

Nafarroako Osasun Zerbitzuak bi abantaila mota horiek, hau da operatiboak eta marjinalak, lortzeko erabiltzen du hitzarmen-sistema. Zehazki, Nafarroako Unibertsitate Klinikarekin duen hitzarmenaren helburu nagusia bigarren abantaila motak lortzea da. Comptosen txostenean agertu bezala, deribazioen % 75 Nafarroako Osasun Zerbitzuan ez dauden tratamenduak jaso ezin dituzten paziente nafarrentzat dira, % 18 puntako eskaera aldiei erantzuteko (eskaera handitu delako, NOZeko langileen bajen edo sasoiko gaixotasunen ondorioz eskaintza murriztu egin delako), eta % 7 baino ez dira eraginkortasun operatiboaren ondoriozkoak (hemodialisirako tratamenduak). Beste alde batetik, deigarria da ikustea Klinikaren jardueraren fakturazioa % 16 igo dela 2009. urtean, txosten horren beraren arabera jardueraren bariazioa % 18koa izan baita egonaldien alorrean, % 26 kontsultetan, % 59 prozesu kirurgikoetan, % 99 diagnostikorako azterketetan eta % 18 transplanteetan (22. orrialdea).

Txostenean kostu marjinalaren araberrako hurbilketaren falta sumatu da, eta ez batez besteko kostuaren ikuspegiaren araberrakoa. Besteak beste, kontuan hartu beharko litzateke puntako eskaera-aldiei erantzuteko Nafarroako Osasun Zerbitzuak lokaletan, kirofanoetan, tresnetan, langileetan, osasun gastuan egin beharko litzuzkeen inbertsioak, kontuan hartuta eskaeraren igoera horiek iraunkorrek edo egoeraren araberrakoa diren, eta gastu hori hitzartzearen aukerarekin konparatuz.

ONDORIOAK

Klinikak Nafarroako Osasun Zerbitzuarentzat 17,17 M € fakturatu zituen 2008an (Klinikaren fakturazio osoaren % 10,4) eta 19,92 M € 2009an (% 12,5). Zenbateko horietatik, % 75 Nafarroako Osasun Zerbitzuan ez dauden tratamenduei dagokie.

Argi utzi nahi izan da beste zentro hitzartu batzuekiko dauden tarifa-aldeak Nafarroako Unibertsitate Klinikak dituen giza baliabideei eta baliabide teknikoiei dagokienez dauden aldean ondoriozkoak direla, kalitate eta espezializazio handiko laguntza eskaini nahi baitzaie bertan artatzen diren paziente guztiei.

Comptos Ganberaren txostenean erabilitako metodologiak ez du benetako kostua azaltzen. Metodoak ez du balio, eta osasun arloko kostuetan aditua den norbaitekin kontrastatzea iradokitzen da. Osasun Ministerioak Espainiako ospitale publikoentzat argitaratutako kostuekin konparatuta egiaztatuta liteke hori.

Txostenean kalkulaturako kostuekiko aldeek badute beste arrazoi bat, hain zuzen ere, tarifa berean ez dira jarduera kopuru berak biltzen, pazientearen profilaren arabera: adina, batera gertatzen diren patologiak, arriskuak, alergiak eta konplikazioak, besteak beste.

Hitzarmenean tarifak finkatzean, Klinikak beherapen handia egin zion O-NOZI tarifa orokorrekiko, egindako fakturazio bolumena zela eta. Beherapen horren eta Klinikaren baliaibide teknikoaren eta giza baliaibideen konplexutasunaren ondorioz, ezin erantzun liezaioke O-NOZetik deribatutako pazientekin egindako jardueren guztizko kostuak, nahiz eta jarduera aldakor horri erantzuteko profesional gehiago kontratatuta edukitzeko aukera ematen duen.

Nafarroan hitzartutako laguntzaren portzenta-jea % 5ekoa da, Espainian, berriz, % 9,44koa (OZNaren Adierazle Giltzarriak. Fitxa Teknikoak, 2010. urtea). Osasun Departamentuaren aurrekontuaren zer ehuneko fiskalizatzen ari den aintzat hartzea iradokitzen da, erabaki ahal izateko hori den Nafarroako Osasun Sistemaren iraunkortasuna bermatzeko alderdi nagusia.

Oso modu positiboan baloratzen da O-NOZen kostuen kontabilitate analitiko bat ezartzearen egokitasunari buruz txostenean egiten den gomen-dioa. Klinikarentzat oso erabilgarria izan zen ezar-

pen hori, eta Nafarroako Gobernuaren esku jar daiteke, esperientzia jakinarazteko.

Klinika irabazi asmorik gabeko zentro bat da, eta ikerketa eta berrikuntza sustatzeko erabiltzen ditu soberakin ekonomikoak; horrek aukera ematen du nafarrei laguntzaren alorreko azken aurrerakuntzak eta berrikuntzak eskaintzeko.

Klinikak azpimarratu nahi du Nafarroako Osasun Sistemako zentro guztiek, publikoek zein hitzartuek, Foru Komunitateko Osasunari egiten dioten ekarpena, eta denok helburu bera bilatzen dugula: Nafarroako Osasuna hobetzea.

Iruñea, 2011ko urriak 17

Zuzendari Nagusia: José Andrés Gómez Cantero

SAN MIGUEL KLINIKAREN ALEGAZIOAK

I. Gure ustez, txosten hori osatugabea da, azterketaren barruan ez delako San Juan de Dios Ospitalea ebaluatu (izan ere, beste txosten bat badago ere zentro horri buruzkoa, hark ez du neurtzen, besteak beste, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbidearen kostuen eta zentro horren arteko tarifen arteko konparazioa). O-NOZen 2009ko memoriaren arabera, zentro horrek garrantzi handia du erakunde pribatuekin izenpetutako hitzarmenak kontuan hartuta:

2009	Kl. Unib.		SJDO		SMK		GUZTIRA
	Jarduera	% guztizkoari buruz	Jarduera	% guztizkoari buruz	Jarduera	% guztizkoari buruz	
ALTAK	2.581	% 40,75	2.422	% 38,24	1.330	% 21	6.333
EGONALDIAK	11.162	% 17,22	42.178	% 65,05	11.498	% 17,73	64.838
FORFAIT KIRURGIKOAK	1.602	% 15,43	7.635	% 73,55	1.144	% 11,02	10.381
EGUNALDIAK GUZTIRA	18.497	% 24,74	43.808	% 58,58	12.474	% 16,68	74.779
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	7,17		18,09		9,38		11,81

II. Aztertutako jarduera hitzartuak O-NOZ-SMK 2009:

Ikusi dugunez behin behineko txostenean hiru prozesu aztertu dira SMKrekiko Hitzarmen Orokorren barruan. Baina prozesu horiek, ondoren azalduko dugunaren arabera, ez daude modu homogeneoan konparatuta. Konparatutako datuak ez badira homogeneizatzen, horien kostuei buruzko ondorioak ezin dira baliozkotzat hartu.

Atal honetako laguntzari buruzko datu guztiak erraz erka litezke Klinikaren mediku-txostenetako artxiboetan. Datuen Babeserako legeak ez digu

pazienteen izenen eta jasotako laguntzaren zerrendak bateratzen uzten beren intimitatea babesteko, baina Legearen barruan hainbat prozedura daude informazio hori kontrastatzeko aukera ematen digutenak; beraz, beharrezkotzat hartuz gero, zuen esanetara gaude helburu horretarako.

Erresonantzia Magnetikoa

Taula honetan, BABOko (Bideko Ama Birjina Ospitaleko Memoria, 2009) eta SMKko Erradiodiagnostikoko Zerbitzuen produktibitatea konparatzen da, epe berean:

	BABO (18 erradiologo)	SMK 4 erradiologo
TAC	21619	2665
EM	4345	4875
MAMOGRAFIAK	9203	1139
EKOGRAFIAK	11903	4023
RX KONTRASTATUA	1800	82
GUZTIRA	48870	12784
PRODUKTIBITEA/ERRADIOLOGOA	2715	3196

Txostena proba hitzartua/erradiologia ratioa Erradiodiagnostikoko Zerbitzu baten produktibitatea neurtzeko erabili ohi da, eta erabakigarria da probaren azken kosturako, horren funtsezko atala baitira giza baliabideak. Baldintza normaletan, ezinezkoa da produktibitate txikiagoko zentro batek kostu txikiagoa edukitzea. Aurrekoa nahikoa ez balitz, BABOko Erradiologiako Zerbitzuaren lan-kargaren garrantzizko parte bat, esaten digutenez, "eguneroko gizalanak" izeneko atalari dagokio, beraz, kostua ez da 18 erradiologorena, baizik eta handiagoa, eta ezagutzen ez dugun kopuruan gainera; edonola ere, horrek produktibitatea murriztu eta, beraz, kostua handituko luke.

SERAMek (Espainiako Erradiologia Elkarteak) Jardueraren Unitate Erlatiboa (URA) erabiltzen du azterketen konplexutasun-maila definitzeko. Esate baterako, ez da gauza bera 5,9 URAko balioa duen belauneko EM bat eta 9,8 URAko abdomeneko EM bat kontrastearekin. Horri dagokionez, SMKk O-NOZentzat egindako EMen ehuneko handi bat (% 20, gutxi gorabehera) proba konplexuak dira: Abdomena/gibela/pankrea kontrastearekin, kolangioerresonantziak, artroerresonantziak, etab. Era horretako proben kostua ezin konpara daiteke proba errazagoekin, denbora gehiago

behar baitute aretoan, eta baita erradiologoaren denbora gehiago ere.

Beste alde batetik, EM bikoitzen % 8 eta % 3,5 hirukoitz egin dira, eta itunaren arabera simple gisa fakturatu dira.

Amaitzeko, EMen % 20ek, gutxi gorabehera, kontrastea behar izan dute, eta hori ez da fakturatu. Ganberak egindako azterketan agertzen den kontrastearen prezioa 82,78 eta 98 € bitartekoa da. (17. or. behin behineko txostena).

Aurreko horregatik guztiagatik ondorioztatzen dugu gure EMak nekez izan litezkeela O-NOZekoak baino garestiagoak.

Hitzartutako beste Erresonantzia Magnetikoei dagokionez, eta zehazki, Allianceri dagokionez, alde nabarmenak daude, eta ezinezkoa da horien kostuen konparazioa egitea:

- Erradiologia ez dago bertan (proben errepi-kapena)
- Ez dago OLTrik, horregatik ezin da kontraste-rik egin
- Konplikaziorik sortuz gero, ez dago horiei erantzuteko baliabiderik.
- Ez dago itxarongelarik

- Ez dago komunik
- Ez dago ohatilaririk, eta behar izanez gero, Nafarroako Osasun Zerbitzukoak Osasunbidea
- Elektrizitatearen, etab. kontsumoak

Traumatologiako Kanpoko Kontsultak

SMKren eta O-NOZen artean izenpetutako Hitzarmenaren bederatzigarren puntua Kanpoko

Kontsulta Anbulatorioei buruzkoa da. Bertan argi definitzen da lehenengo kontsultaren, errebisioaren edo ospitaleko altaren ondorengo hilabeteen egiten diren azterketak horien barruan sartuta daudela. Beraz, jarduera-bolumen handia dago gaixoaren jarraipen egokia egiteko (fakturatu gabe egin da), eta ez da kontuan hartu kostuen konparazioa egiteko orduan.

O-NOZeko jarduera	Eginak	Fakturatuak	Fakturatu gabeak
Lehenengo kontsulta	272	8	264
Errebisioa	769	348*	421

* Kopuruak ez datoz bat behin behineko txostenean azaldukoekin, ekimenak kontabilizatu/egozteko orduan dagoen aldeagatik (azterketaren 13. or.).

Aurreko taularen arabera, garbi dago fakturatutako azterketa bakoitzeko 1,2 daudela fakturatu gabe, eginak eta beharrezkoak; beraz, kostuen konparazioan bider 2,2 egin beharko lirake O-NOZI egotziak.

2009an fakturatutako traumatologiako errebisioak ebakuntza bat izan duten gaixoei dagozkie denak eta egindako proba guztiak eta erabilitako material guztiak sartzen dira (sendaketak, puntuak kentzea, ferulak, igeltsuak, lotailuak, erradiologia konbentzionala, analitikak...); horregatik hartu da mailako kosturik handiena.

ERREBISIOAK	Kostua behin behineko txostenaren arabera	Kostua * 2,2
60000Ubarmin	71,92€	158,22 €
Nafarroako Ospitalea	51,25 €	112,75€
Reina Sofía O.	42,92 €	94,42 €
García Orcoyen O.	57.95 €	127,49€
Unibertsitate Klinika		138.92 €
San Miguel Klinika		65,11 €

Aurreko taulatik ondorioztatzen da O-NOZentzat kalkulaturako kostuen egokitasunez jardun gabe ere (hurrengo atalean sakon aztertuko da datu hori), SMKarekin azterketarako hitzartutako prezioa guztietan, publiko zein pribatuetan, merkeena dela, askogatik gainera. O-NOZentzat SMKren traumatologiako azterketek dituzten kostuak eta Unibertsitate Klinikakoen kostuak konparatuz gero (paziente horiek bidaltzen dituen zentroa), lehenengokoek erdia baino gutxiago dira (% 41).

Lehenengo Kontsultei dagokienez, funtsezko bi mota daude horien barruan fakturazioari dagokienez. Alde batetik, Traumatologiako Itxaron Zerren-

dan dauden pazienteak, Lehen Mailako Arretatik bidaliak, oraindik espezialistak ikusi ez dituenak eta ehuneko txikian baino ez dutenak ebakuntza izango, eta beste alde batetik, espezialistak ikusitako pazienteak, espezialistak ebakuntza egin behar zaiela adieratakoak eta ebakuntzarako bidaltzen dizkigutenak. Azken kasu horixe izan da gurea 2009. urtean, eta horregatik adierazten da egindako lehenengo 264 kontsultak eta fakturatu gabeak, Ubarminetik SMKra gure zentroan ebakuntza egiteko bidalitako 264 pazienteri dagozkiena. Belauneko protesien atalean azalduko da puntu hori.

Lehen Mailako Arretatik bidalitako pazienteei dagokienez, azterketekin gertatzen den gauza bera gertatzen da. Hilabete batez ezin da fakturatu egindako kontsultarik, eta espezialistaren azterketarik izan ez duten pazienteak direla kontuan hartuta, probak eskatzen dira ia beti (TAC, EM, EMG, RX...) eta gutxienez 2 eta 3 errebisio eskatzen diren, ezin fakturatu litekeen hilabetearen barruan, proben emaitzak eta osasun tratamenduaren bila-

kaera aztertzeko. Hortaz, konparatzeko modukoa izateko, lehenengo kontsultaren hitzarmeneko kostuari 2 errebisio gehiago erantsi beharko litzaizkioke (errebisioaren kostua kalkulatzeko zentro bakoitzaren batez besteko kostua hartu da oinarri, izan ere, errebisio horietan guztietan ez dira probak egiten, eta kontsultaren kostua kalkulatzeko maila bakoitzaren kostu handiena hartu da, lehenengo kontsulta ia guztietan probak egiten direlako).

Lehenengo kontsultak	Errebisioaren batez besteko kostua	1. kontsultaren kostua	1. kontsulta + 2 errebisio
Ubarmin	45,66 €	91,32 €	182,64 €
Nafarroako Ospitalea	36,71 €	59,61 €	133,00 €
Reina Sofía O.	31,33 €	62,66 €	125,32 €
García Orcoyen O.	38,75 €	77,50 €	155,00 €
Unibertsitate Klinika			171,82 €
San Miguel Klinika			113,94 €

Ebakuntza edukiko ez duten pazienteen lehenengo kontsulten atalean ere zentrorik merkeena gara, bai publikoen bai pribatuen artetik.

Paziente kirurgikoen lehenengo kontsultak ez dira fakturatzeko.

Belauneko protesia

O-NOZekin izenpetutako hamaikagarren puntua "Forfait" prezioak deiturikoekin fakturatu diren prozedurei buruzkoa da. Puntu horretan argi eta garbi ezartzen da "prezio horretan sartzen dira paziente ospitaleratzen denetik alta ematen zaion arte sortzen dituen gastu guztiak, aurreko zein ondorengo kontsultak, eta prozedura egin ondorengo bi hilabeteko epean egin behar diren diagnostikorako proba guztiak zein proba terapeutikoa, ohikoak edo bereziak... Halaber, tarifa horren barruan gelditzen dira laguntza-prozesu osoan sor litezkeen konplikazioen ondoriozko jarduerak, bai ebakuntzaren aurretikoak bai ebakuntza kirurgikotan bertan sortuak eta baita ebakuntzaren ondorengoak ere, bi hilabeteko epean".

Zentro publikoen kostuen kalkuluan ez dira kontuan hartu ez kirurgiaren aurreko gastuak, ez konplikazioak, eta hori deigarriagoa da, izan ere, sortzen direnean baliabide asko kontsumitzen dira.

2009an SMKan belauneko protesia jartzeko ebakuntza izan duten paziente guztiak Ubarmineko itxarote-zerrenda kirurgikokoak ziren. Hau da, espezialistak ikusi dituen pazienteak dira, eta hark, aurretik egindako azterketaren bitartez, ebakuntza egin behar zaiela adierazi du. Horrek ez du saihesten, kasurik onenetan, ebakuntza egingo dion traumatologoarekin lehenengo kontsulta edukitzea, izan ere, harentzat paziente ezezagun bat da, eta ezin zaio ebakuntzarik egin inoiz ikusi edo aztertu ez duzun paziente bati. Lehenengo kontsulta horren aurretik, SMKn pazienteak Ubarmine izandako azterketa osagarriak jasotzen ziren: erradiologia konbentzionala, Erresonantzia Magnetikoak...

Teorian, pazienteen guztien, % 100, azterketak jaso behar genituen, baina, praktikan ez zen horrela gertatzen:

EM anbulatorioak, 2009, O-NOZera	NOZari fakturatuak EM	Fakturatu gabeko EMak
1673	1541	132

2009an, SMKak itxarote-zerrenda kirurgikoko 275 paziente jaso zituen Ubarminetik. Prozesu kirurgikoak askotarikoak izan ziren. Fakturatu gabeko EM anbulatorio horien parte bat 275 paziente horiei egindako probei dagozkie, bai eraman ez zirelako, bai ebakuntzaren aurretik edo ondoren (2 hilabeteko epean), modu anbulatorioan behar izan zirelako. Azterketa horiek, O-NOZekin lehenengo kontsulta eta errebisiorako hitzarmenaren arabera, fakturatu badaitezke ere, paziente kirurgikoekin egin ditugunean, faktura itzuli digute modu sistematikoan, forfait prezioak dena hartzen duela argudiatuz. Jasotako prozesu kirurgiko guztietan egin behar da EM bat, esate baterako "Hallux valgus"-en kasuan. Hau da, patologia mota horretako edo beste batzuetako pazienteen parte batek (belauneko, besagaineko artroskopiak...) fakturatu ez den EM anbulatorio baten premia eduki du. Hori ebakuntzaren aurretik gertatu bada, pazienteak azterketa bat behar izan du, lehenengo kontsultaz gainera, proba hori edo beste batzuk balortzeko.

Belauneko protesiek ebakuntzaren ondoren izaten dituzten konplikazioei buruz argitaratu diren datuak oso aldakorak dira, zentroaren, trebetasun kirurgikoaren eta zirujauaren arabekoak, egindako azterketaren arabekoak, etab. dira. Erabil ditzagun datu baikorrenak, hau da, konplikazio gutxien dituzten serieak.

Belauneko protesia duten pazienteen % 10 gutxienez, protokoloan adierazitakoa baino osasun laguntza handiagoa behar dute, forfaitak hartzen duen eta ezin faktura daitekeen epearen barruan (ebakuntzaren ondoren, hilabete eta erdira egindako bisita bat da ospital publikoen kostuen kalkuluetan kontuan hartutako bakarra). % 10 horren erdiak (% 5), gutxi gorabehera, konplikazio arinak izaten ditu: oinazea, handitzea, zauri kirurgikoaren punturen bat pixka bat infektatzea... etab. Normalean, 1 eta 3 kontsulta bitartekin konpontzen dira. Pazienteen beste % 5ek konplikazio larriak dituzte, berriro ospitaleratu behar izaten dira, eta, kasu askotan, beste ebakuntza bat egin behar zaie. Sor litezkeen konplikazio larri horiek protesien infekzioak, tronbosiak, haustura periprotetikokoak, etab... dira.

% 5 horren erdiak (% 2,5), gutxi gorabehera, infekzioak dira. 2003an, Madrilgo Gomez Ulla Ospitaleak adierazi zuen kostu horiek 56.378€-koak zirela, eta 2007an, berriz, Arnau de Vilanova

Ospitaleak 50.000 €-tik gorako kopurua aipatzen du. Beste herrialde batzuetako argitalpenetan kopuru handiagoak aipatzen dira. 2009an, gure ingurunean, 60.000 € euro ingururi buruz hitz egin liteke. Gai horri buruz, bi faktore hartu behar dira kontuan:

– Belauneko protesien forfaietan ez da protesia bera sartzeko, O-NOZek ordaintzen baitu; beraz, belauneko protesia aldatzeko kirurgian eta horren ondoriozko kostuetan ere deskontatu egin beharko litzateke. Protesi horien kostua 2.000 eta 3.000 € bitartekoa da, erabiltzen denaren arabera. Beraz, 60.000 € horiei kopuru hori deskontatu beharko litzaioko.

– Belauneko protesien infekzioa batez ere forfaitak hartzen duen 2 hilabeteko tartean gertatzen da, eta baita horren tratamendu kirurgikoa ere aipatutako kasu larrietan. Edonola ere, infekzio guztiak ez dira 2 hilabete horietan gertatzen, eta tratamendu osoa ere ez da bi hilabete horietan "kontsumitzen", nahiz eta hala gertatu kostu handienekoaren kasuan (beste ebakuntza bat).

Aurreko bi puntuak kontuan hartuta, SMKak forfaitaren barruan bere gain hartzen duen belauneko protesien infekzioaren kostua, halako konplikaziorik sortuz gero, argitaratutako 60.000 € horien % 60koa izango litzateke, hau da, 36.000 € inguru.

Gainerako konplikazio larriak (haustura periprotetikokoak, tronbosiak, enboliak...) ere ebakuntzaren ondorengo 2 hilabeteko epean gertatzen dira batez ere. Ez dugu konplikazio horien kostuei buruz hitz egiten duen argitalpenik aurkitu. Haustura periprotetikokoak tratamendu kirurgikoa behar dute, eta kostu handiko osteosintesiko materiala erabili behar da, forfaitetik kanpo ez dagoena. 10.000-20.000€/kasuko izango litzateke. Tronbosenbolismoaren kasuan, kostua txikiagoa izango litzateke. Batez beste, beste konplikazioez osatutako talde honek 8.000€/kasuko kostua izango luke.

Aurreko datuak kontuan hartuta, konplikazio larriek SMKarekin hitzartutako forfait tarifaren % 25 hartuko lukete.

Beraz, ospitale publikoen kostuak SMKekin hitzartutako prezioekin konparatu ahal izateko, ospitale publikoen kostuen kalkuluan kontuan hartu ez diren laguntzak eta konplikazioak sartu beharko lirateke haietan.

1 Ebakuntzaren aurreko kontsulta (pazienteen % 100)	113
EMen eta besteen parte proportzionala (pazienteen % 10)	25
Konplikazioak	1.109
GUZTIRA	1.247

Aurreko guztia kontuan hartuta, O-NOZen kostuen eta hitzartutako prezioen arteko taula konparatiboa horrela geldituko litzateke:

BELAUNEKO PROTESIA	
Ubarmin	5.765,26 €
Nafarroako Ospitalea	4.875,03 €
Reina Sofía Ospitalea	4.786,92 €
García Orcoyen O.	5.036,50 €
Unibertsitate Klinika*	7.418,23 €
San Miguel Klinika	4.437,63 €

* Aurreko taulan 1.247 € erantsi dizkiogu Comptos Ganbera honen behin behineko txostenean lortutako kostuei.

III. Hitzartutako tarifei eta horiek O-NOZEN duten kostuari buruzko gogoetak:

Oro har baliozkotzat hartzen badugu ere kostuen kalkulurako metodologia orokorra, ez dakigu horiek oinarritzen dituzten datuen jatorria zein den, eta uste osoa dugu, esate baterako, amortizazioak higiezinaren balio katastralaren arabera egozte (ez dira honidurei dagozkienak definitzen) ez dela inondik ere nahikoa. Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta Osasun Hitzarmenen Behin-behineko Txostenean lortutako kostuen ondorioak kontrastatzeko zailtasuna, beste prozedura batzuen bitartez ebaluatuko ditugu horiek:

Lehenengo prozedura: Erresonantzia Magnetikokoaren kostua:

Prozedura horretan, zehazki O-NOZentzako kostuak ebaluatuko ditugu, SMKrekin egindako hitzarmenak baldintzatuaren arabera eta kontuan hartuta "aztertutako jardura hitzartuak NOZ-O-SMK 2009" atalean azaldutakoa, O-NOZEN 2009ko memoriaren datuak eta ekitaldi horretara-

ko eta erradiodiagnostikoaren espezialitaterako BABOK egindako Memoriaren datuak.

BABOn erresonantzia magnetikoa Ganbera honen behin behineko txostenean 12.25 ordu egunean eta 246 lanegunez urtean dagoenez zabalik, bertan urtean 3013.50 orduz lan egiten direla ondorioztatzen dugu. Beste alde batetik, O-NOZeko langileek beren hitzarmenean urte horretarako 1.592 ordu aurreikusten zituzten, beraz, 1,89 langile beharko genituzke aipatutako ordutegia betetzeko. Kategorien arabera soldaten kostuak ezagutzen ez ditugunez, 2009ko 1. ataleko gastu erreala O-NOZEN Memoriaren 6.1 taulako langile kopuruagatik zatituta ateratzen den batez besteko soldata hartu dugu aintzakotzat.

Era berean, beharrezkoak iruditzen zaizkigu, zerbitzua martxan dagoen bitartean, gutxienez erradiologo bat, OLT bat, TER bat, administratibo bat eta zeladore bat.

Premisa horiek guztiak kontuan hartuta, zerbitzu horretako langileen gastua BABOn 2009. urtean honako hau izango litzateke zehatz-mehatz:

OLT	95.532,58 €
TER	95.532,58 €
ADVA	95.532,58 €
ZELADOREA	95.532,58 €
ERRADIOLOGOA	95.532,58 €
LANGILEEN KOSTUA GUZTIRA	477.662,90 €

Kontuan hartuta urte horretan BABOn egindako EMen kopurua (4.345), Erresonantzia Bakun bakoitzeko langileen kostua 109,93koa da. Bestalde, O-NOZek bere aurrekontuaren % 50,96 langileen gastuetarako erabiltzen duenez, aurretik kalkulaturako partidari aurrekontuko gainerako atalei dagozkien gastuen proportzioa erantsi beharko genioke, eta RMN bakoitzaren kostua, guztira, 215,74 €-koa izango litzateke.

Gogoeta gehigarriak:

1- SMKn 2009an egindako EMen % 20 proba konplexuak dira, 9,8 URAkoak, eta bakunak, berriz, 5,9 URAkoak.

URA konplexuak	9,8
URA sinpleak	5,9
Aldea	3,9
Ehunekoa	% 66

2- SMKn EM guztiak berdin konbratzen dira, kontuan hartu gabe bakunak, bikoitzak edo hirukoitzak diren. 2009ko ekitaldian, SMKn % 8 bikoitz artatu ziren eta % 3,5 hirukoitz.

3- EMen % 20k kontrastea behar izan dute, eta ez da zenbateko gehigarria fakturatu; horren prezioa 83 eta 98 € bitartekoa da.

Hitzarmenean jasotako baldintza ekonomikoekin eta bestelakoekin lortutako kostua konparatu ahal izateko, aurreko gogoetan osagarriak txertatu behar ditugu, eta, lehena saihestuta ere (konplexutasuna), garrantzizkoa dena kostuetan, SMKko tarifarekin konparatu litekeen azken kostua honako hau litzateke:

% 8,00	Bikoitzak	* 2	34,52€
% 3,50	Hirukoitzak	* 3	22,65€
% 20,00	Kontrastearekin	+83	59,75€
% 68,50	Bakunak	=	147,78€
% 100			264,7€

Beraz, lehenengo prozedura honen arabera ondorioztatuko dugu SMKrekin hitzartutako prezioa, 250€/erresonantziako, aurretik kalkulaturako kostuen ondoriozko 264,70 €-ak baino merkeagoa dela.

Bigarren prozedura:

Bigarren prozedura O-NOZen Memoriako datuetan eta urte horretako SMKren ikuskaritzako

datuetan oinarri hartuta osatu da, eta hitzarmenaren kostuei buruzko zeharkako ondorioetara eramango gaitu.

O-NOZen 2009ko memorian adierazten da 1. ataleko gastu erreala (langileen gastua) 495.906.874 €-koa izan zela eta O-NOZeko langile taldea guztira 9.826 lagunekoa zela; horrek batez beste pertsonako 50.468,85 €-ko gastua ematen digu urteko. SMKko batez besteko gastua pertsonako 42.608,21 eurokoa zen urteko.

Oheko langile kopurua (ratio hori erabiliz zentroen arteko konparazioa egiteko) 4,52koa zen Nafarroako Ospitalean oheko eta langileko, 4,5ekoa BABOn, 3,08koa Ubarminen, eta 2,57koa SMKn.

Erantsitako SMKren kontu-ikuskaritzak salmenten gaineko % 3,2ko errentagarritasuna adierazten du, eta, hortaz, diru-sarreraren % 96,8 gastua dira, hau da, kostuaren eta prezioaren arteko erabateko oreka.

Aurretiko informazio hori oinarri hartuta, pertsonako batez besteko kostua % 18,45 handiagoa denez, langile/ohe ratioa ere handiagoa denez O-NOZeko Zentroetan eta SMKko kostuak diru-sarrerekin estuki lotuta daudenez, O-NOZen kostuak, edozein prestaziotan, hitzarmenaren prezioa baino handiagoak dira.

Hirugarren prozedura:

Hirugarren prozedura hori O-NOZen GDRetan oinarrituta dago, eta 2010ekoak hartzen eta konparatzen dira, urte horretako maiatzean eguneratzen baititu O-NOZek bere kostuak/tarifak.

O-NOZen maiatzaren 3ko 882/2010 ebazpenak, zeinak eguneratu egiten dituen zerbitzuak emateagatiko tarifak O-NOZ horren zentroetan, honela dio atarikoan: "prezio publikoen zenbatekoa ezartzeko edo aldatzeko proposamen orori Memoria ekonomiko-finantzario bat erantsi behar zaio, justifikatzeko proposatzen diren prezioen zenbatekoa eta dagozkien kostuen estaldura finantzarioaren maila" eta 5. artikuluan adierazten du "zerbitzuaren kostu ekonomikoa zerbitzuaren modalitateetan oinarri gisa hartuko da tarifak finkatzeko". Kostuaren eta tarifaren arteko harreman zuzen hori oinarri hartuta, NOZek berak adierazten digu zer kostu izango duen zerbitzuetako bakoitzean.

Hona hemen SMKren eta O-NOZen tarifak/kostua taula konparatiboa:

KONTSULTAK	SMK 2010	NOZ 2010
1. kontsulta	114,80 €	220,00 €
Errebisioa	65,60 €	135,00 €
OSPITALERATZEA	SMK 2010	NOZ 2010
Mediku-egonaldia lehenengo 9 egun	317,20 €	585,00 €
Mediku-egonaldia lehenengo 10. egunetik aurrera	229,70 €	585,00 €
DIAGNOSTIKORAKO PROBAK	SMK 2010	NOZ 2010
EMN bakuna	250,00 €	309,04 €
EMN bikoitza	250,00 €	463,57 €
EMN hirukoitza	250,00 €	566,56 €
TAC	132,80 €	240,64 €
PROZESU KIRURGIKOAK	SMK 2010	NOZ 2010
Belauneko protesia	4.473,10 €	12.012,08 €

Ebaluazio-prozedura horren bitartez ondorioztatzen dugu, halaber, SMKrekiko hitzarmena onuragarria dela O-NOZentzat bere kostuak kontuan hartuta.

Laugarren prozedura:

2009ko abuztuaren 5eko Comptos Ganberaren NU-O-NOZ Osasun Laguntzako Kontratuari buruzko Fiskalizazio txostenak zehazten du O-NOZen osasun zerbitzuaren kostua, farmaziako zerbitzuak deduzituta, 767,81 €-koa dela pertsonako eta urteko, enpresa-egituraren kontzeptuari dagokionez % 25 deduzituta; beraz, deduzitutako kopuru hori kontuan hartuko bagenu unitateko gastua 1023,75 €-koa izango litzateke urteko herritarreko. SMKren jabe den IMQ konpainiak, urte horretan bertan, Administrazio Zentraletik 684.91€ jaso zituen pertsonako eta urteko, laguntza Aseguru Erakundee-kin (IMQ) jasotzea hautatu zuten funtzionarioen osasun laguntzarako.

O-NOZeko kostuak eta IMQrenak konparatzen dizkigun prozedura honek aurreko ondorioak berrestera eramaten gaitu.

IV. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak erakunde pribatuekiko hitzarmenei eta horrek Nafarroako Gobernuarentzat-ONozentzat dituen kostuei buruzko kezka kontuan hartuta, argi utzi nahi dugu kezka horren helburua garen aldetik, IMQ Nafarroa taldeak (IMQ Aseguru Konpainia, SMK, RSA), 27.050 nafar artatzen/aseguratzen dituela IMQ

aseguru-etxearen bitartez eta horrek aukera ematen diola Nafarroako Gobernua-NOZ-Ori, haren kostuen arabera, 27.692.437,5€ (1023,75€*27.050) aurrezteko, izan ere, ez balitz gurearen antzeko erakundeengatik, Nafarroako Gobernua-O-NOZek pertsona horien laguntza hartu beharko luke bere gain, ordain ekonomikorik gabe.

ONDORIOAK

Lehenik, ez dakigu zein den Ganberak O-NOZen kostuen kalkulua egiteko erabilitako datuen jatorria; hala eta guztiz ere, O-NOZen Memoriatik datozen datuen eta gure prozeduretan erabilitako gainerako eranskinen arabera ondorioztatzen dugu kostu errealak SMKrekin hitzartuak baino nabarmen handiagoak direla.

Bigarrenik, ezin uler liteke laguntzaren kalitate berberaz emandako antzeko zerbitzuei dagokionez, eta atal batzuetan kalitate handiagoarekin (SMKn gela guztiak banakakoak dira), hitzarmenaren prezioetan horrenbesteko aldea egotea zentro batzuetatik besteetara.

Eta azkenik, txosten honi amaiera emateko, azken datu bat utzi dugu, funtsezkoa gure ustez: SMK artatutako pazienteen gogobetetasun-maila handia, bai ahoz bai idatziz pazienteen beren aldetik jasotako jakinarazpenen arabera, eta baita O-NOZetik bertatik jasotako arabera ere.

NAFARROAKO DIAGNOSTIKO ERRADIOLOGIKO ZENTROA, S.L.-REN ALEGAZIOAK

Pilar Ruiz de Erenchun Lasa andrea, Nafarroako Diagnostiko Erradiologikoko Zentroaren izenean eta haren ordezkari gisa, jakinarazpenetarako helbidea Amaiurko Gaztelua kalean, 41. zenbakian, 31003, Iruñean duena, organo honen aurrean agertzen da, eta zuzenbidearen arabera ondoen dagokion moduan,

AZALTZEN DU

2011ko urriaren 7an ezagutarazi zaiola, bide telematikoen bitartez, "Osasun Hitzarmenei buruzko Behin-Behineko Txostena," organo horrek 2008 eta 2009 ekitaldietarako egina, bertan aipatzen baita, "hura ezagut dezan eta egoki irizten duena adieraz dezan" 2011ko urriaren 14a baino lehen; epe hori, zentro honek luzapen-eskaera egin ondoren, urriaren 18ra zabaldu zen.

Aipatutako adierazpena denboraz eta formaz bideratuta, Centro de Diagnóstico Radiológico de Navarra S.L. enpresak honako alegazio hauek egin dituela,

ALEGAZIOAK

LEHENA.- Prezioen konparazioari dagokionez.

Prezioen konparazioari dagokionez jakinarazitakoa irakurri ondoren, Zentro honek zehaztaperik hauek egin behar ditu:

a) Lehenik, hitzartutako prestazioen tarifei dagokienez (txostenaren 16. eta 27. orrialdeak) honako hau adierazten da: "alde nabarmenak daude prestazio beretarako zentro pribatu desberdinen tarifen artean, eta itunaren testuan ez da zehazten edo deskribatzen elementu edo ezaugarri bereizgarririk."

Baieztape horren zehaztasunik eza txostenaren beraren testuan gelditzen da nabarmen, izan ere, bertako 7. orrialdean nabarmen gelditzen da aldeak daudela esaten denean unitate mugikorren diagnostikorako probak egiteko hitzarmena laguntza anbulatorioaren Koordinazio Zuzendariordeak koordinatzen zuela, izan ere, laguntza horretarako hitzartu zen hasieran, hain zuzen ere.

Era horretara esan liteke badaudela tarifa-aldeak justifikatzen dituzten ezaugarri edo osagai bereizgarriak, hala nola azpiegiturak, instalazioak, makinak, zerbitzuak, pazienteen fluxua, eta lanean diharduten langileen arreta, kopurua eta prestakuntza.

Kontuan hartu behar baita hitzarmenaren azken helburua bestelakoa dela, horregatik kudeatzen dute zerbitzu desberdinek, eta hortaz, tarifen

arteko aldea zerbitzu anbulatorio horri dagokio, izan ere, ikus daitekeenez gainerako zentro pribatuaren artekoak ez dira kontuan hartzekoak.

b) Bigarrenik, erresonantzia magnetikoen tarifak aipatu behar dira (txostenaren 17. orrialdean azalduak).

Zehazki, Allianceren tarifari dagozkion prezioen eta datuen konparazioari buruz honako hau nabarmendu behar da: zentro honen ustez, txostenean egiaztatutako tarifari administrazioak zuzenean jasaten dituen eta Alliancek jasaten ez dituen hainbat gastu erantsi beharko lirateke txostenean, hala nola, kamioiaren kontsumo elektrikoa, lur publikoa erabiltzeagatik kostu ezkutua (alokairuaren orde), ospitaleak bere gain hartutako segurtasun- eta zaintza-kostuak, hiriko zergak eta zaborrei dagozkienak. Kostu horiek guztiak, maila handi batean, Administrazioak hartzen ditu bere gain, halako eran non kostu erreala islatua baino handiagoa den. Gainera, txostenean ez da argi geratzen zein den probaren kostua Alliances, txostena Administrazioak berak egiten badu ere eta O-NOZeko Erradiologiako langileek parte hartzen badute ere txostenean, eta, hortaz, proba horren azken kostua ezagutu daiteke.

Horren aurrean, azpimarratu beharra dago Centro de Diagnóstico Radiológico de Navarra S.L. zentroak pazientearen arabera ezartzen duela tarifa, proba mota, kopurua eta hedadura kontuan hartu gabe.

c) Beste alde batetik, zehaztu beharra dago 17. orrialdeko edukari dagokionez, San Martin Zentroaren kostua ez dela parametro konparatibo bat, erabiltzen den makinaren ezaugarri teknikoak, haren kostua eta aplikazioak ez baitira berdinak. Aldi berean, kontuan hartu beharra dago nik ordezkatzeko Zentroaren kostua berdina dela deribatzen diren proba guztietarako, proba mota bereizi gabe.

d) Eta atal honekin amaitzeko, adierazi beharra dago txostenaren 24. orrialdean egiaztatutakoaren arabera, Alliance enpresaren jarduerarentzat taula bat erantsi beharko litzatekeela, gainerakoaren antzekoa.

BIGARRENIK.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren osasun prestazioetarako kostuei buruz.

Atal horri dagokionez (bereziki txostenaren 29. orrialdean bildua), zentro honen alegazioak era honetara laburbildu daitezke:

a) Lehenik, kontuan hartu behar da, 5. orrialdean adierazten denaren arabera jardueran oinarrituak ez diren zeharkako kostuen banaketarako for-

mulen erabilera muga bat izan litekeela, eta gerta liteke, halaber, kostua zehatza ez izatea, nahiz eta kopuruaren gorabehera ez litzatekeen nabarmena izango.

Beste alde batetik, 31. orrialdean adierazten denaren arabera, proba mota bererako kostuen arteko alde horiek azaltzen dituzten zentro publikoen jardueran eragiten duten faktore nagusiak honakoak dira:

Zabaltzeko ordutegia.

Proba egiteko batez besteko denbora.

Makinen kostuak, mantentzeko gastuak eta erabiltzen den ordu kopurua.

Hori kontuan hartuta, zentro honen iritziz alde nabarmenak daude erradiologiako probetarako kalkulaturako kostuetan, eta alde horiek ez daude behar adina arrazoituak edo justifikatuak; gainera, ez dira zentzuzkoak eta inkoherenteak dira. Hori dela eta, horri dagokionez emandako datuak aztertu ondoren, adierazi beharra dago kalkulua sistema hori ez dela erabat objektiboa, eta berriku-

si egin behar dela, izan ere, azaldu zaizkigun alde nabarmenenak, eskulan zuzenaren edo zeharkakoaren kostuaren ondoriozkoak dira, edo gauza bera dena, probak egiten dituen langileen antzinkotasunaren eta zeharkako langileen ondoriozkoak dira, eta horrek eragin zuzena du horien kostuan.

Esate baterako, San Martin Zentroan azaldu digute antzintasuna askoz ere txikiagoa dela, eta, hortaz, kostua ere txikiagoa dela. Horregatik, zentro horrek pentsatzen du, eta proposatzen du, beharrezkoa dela eskulanaren kostua balioztatze-ko irizpide hori berrikustea O-NOZen barruan batez besteko kostu estandarra kalkulatzeko helburuarekin eta probaren kostua ez dadin pertsona egokiaren eta haren soldataren kostu bereziaren arabera izan; aitzitik, kostua egindako lanaren arabera izan behar du, batez bestekoa eta estandarra kontuan hartuta.

b) Bigarrenik, kostuen datuak eta bariazio portzentualak kasu bakoitzari dagokion kostu txikiaren arabera aurkezten dira.

	Belaunekoa			Orkatilakoa			Belaun edo orkatilakoa	
	Kontrasterik gabe			Kontrasterik gabe			Kontrastearekin	
	NAO	BAO	CESM	NAO	BAO	CESM	NAO	BAO
Zuzeneko kostua	55,59	87,34	50,01	55,59	93,21	58,8	128,04	176,29
Zeharkako kostua	7,92	15,3	5,45	7,92	16,33	5,45	18,25	30,89
Guztira	63,51	102,64	55,46	63,51	109,54	64,25	146,29	207,18
ZuzK	% 11	% 75	.		% 68	% 5,8	-	% 38
ZeharK	% 45	% 181	.	% 45	% 200	.	-	% 69
KG	% 15	% 85	.		% 72	% 1,2	-	% 42

Zabalik	13,5	12,25	13
		-% 9	-% 4

-% 6

Probarako denbora	20	30	35
		% 50	% 75

% 17

Era horretara, datu horien arabera, zentro honentzat proba batzuetatik besteetara eta zentro batetik bestera dauden aldeak ez daude behar adina azalduta.

Eta hala da, eta horretarako nahikoa da egiaztatzea:

1.- CESMn dira proben gastuak txikiak, baina bertan erabiltzen da denbora gehien proba bat egiteko, kontuan hartzen bada bertako ordutegia NAOkoa baino % 4 handiagoa dela.

2.- CESMen probak egiteko denbora gehiago behar izatea ez da koherentea kostua txikiagoa izatearekin.

3.- ONAren (20 m) eta BAO (30 m) zentroen artean probarako denbora-aldeak ez du justifikatzen proben kostuen arteko aldea. Hori dela eta, horri buruzko alegazioa egin ahal izateko, Zentro honentzat ezinbestekoa da horien osakerari buruzko informazio gehiago edukitzea.

c) Prestazioaren unitateko kostu estandarren kalkuluarik dagoenez, Zentro honen iritziz, probak egiteko makinek duten kontsumo energetiko izugarria dela eta hori jakin litekeela kontuan hartuta, eta makinaren ezaugarri teknikoak direla eta etengabe piztuta egon behar dutenez, zuzeneko kostuan ere sartu beharko litzateke kontzeptu hori; baina, hala ere, ez da halakotzat hartu, eta zeharkako beste kostu bat bezala hartu da, zentro publikoen kostuen barneko beste hornigai baten kontzeptuaren barruan.

4.- Azkenik, txostenaren 32. orrialdean sartuta paragrafoari buruzko alegazio bat.

Honela dio zehazki paragrafo horrek: "Erresonantzia magnetikoak kontratazio-prozedura bakar baten bitartez kontratatzea aurrezteko modua izango dela uste dugu, horiek egiteko prozesua zentralizatu egin delako eta prezio doituagoen bitartez esleitzen direlako".

Zentro honen ustez, ez dago ez irizpiderik ez daturik baieztatzen proposatutakoa denik osasun laguntzaren kalitateari prezio egokituarekin eta horren ondoriozko aurrezkiekin eusteko modurik eraginkorrena eta fidagarriena. Alderantziz, konkurrentzia eta lehia desagertzea zerbitzuaren kalitatearen kalterako izan litekeela uste da, monopolio bailitzateke. Gainera, horrek ez luke eskaintzaren kalitatea hainbat ikuspegitatik ezagutzeko eta konparatzeko aukera emango, hala nola, pazientearen eta medikuaren ikuspegitik, eta ondorioz, ezingo litzateke neurri zuzentzailerik ezarri, ez epe laburrean ez epe luzean.

Horregatik uste da eraginkorragoa dela tarifa finkoak dituzten prezio bereko hainbat zentro kontratatzea eta Osasunaren alorreko Administrazioak aurretik finkatuak izatea.

Azaldutako guztia dela-eta, eta horren bertutez,

ESKATZEN DUT.- Aurkeztutzat hartzea idatzi hau, izapidetzeko onartzea eta horren merezimenduz, urriaren 7ko datarekin bideratzea eta, ondorioz, aurreko alegazioak adierazitzat hartzea, eskatzen diren datuak zentro honen eskura jar daitezen eta kontuan har daitezen behin betiko txostena osatzeko.

Justizia hau eskatzen dut Iruñean 2011ko urriaren 18an.

María Pilar Ruiz de Erenchun Lasa

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA

Eskerrak ematen dizkiegu Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari, Nafarroako Unibertsitate Klinikari, San Miguel Klinikari eta Centro de Diagnóstico Radiológico Médicos S.L. zentroari aurkeztu dizkiguten alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari erantzen zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen.

Edonola ere, berriro ere egiten dugu Nafarroako Osasun Zerbitzuaren osasun prestazioen kostua kalkulatzeko sistema bat ezartzeko eta erabakiak hartzeko kudeaketa-tresna bat izateko gomendioa.

Kostuak kalkulatzeko erabili dugun sistema, prozesu bidezkoa, kostuak kalkulatzeko sistemeta bat da. Gure ustez, sistema horren bitartez ONOZeko zentro publikoentzat kalkulatuak unitate estandarren kostua pazienteari emandako osasun laguntzaren baliabideen kontsumoen egitura errearen erakusgarria da, eta, hortaz, adierazle baliagarria eta egokia da erabakiak hartzeko.

Txosten horren 29. eta 30. orrialdeetan ONOZen osasun zentroen kostuak kalkulatzeko Ganbera honek aplikatutako metodoaren azalpen zehatzagoa eskaintzen da.

NAFARROAKO GOBERNUAREN OSASUN DEPARTAMENTUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA:

1- Ganbera honen iritziz, ezinbestekoa da zerbitzu publikoen kostua ezagutzeko baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra edukitzeko, eta ez

zaigu nahikoa iruditzen hitzartutako tarifak beste Autonomia Erkidego batzuetako tarifekiko konparazioan oinarritutako prozedura.

2- Komenigarria da idatziz jasota uztea O-NOZek premiei eta aukerei egindako ebaluazioa, osasun alorrean hitzartu aurretik, eta ebaluazio horietan premien eta aztertutako aukeren balorazio ekonomikoa sartzea.

3- Egindako kostuen kalkulua O-NOZek emandako informazioan, bai Zerbitzu zentrali dagokionez bai Mediku Zerbitzuei dagokionez, eta Lehendakartzako Departamentuan emandako informazioan oinarrituta dago.

4- O-NOZek erresonantzia magnetikoak direla eta aurkezten duen 112,47 euroko batez besteko kostuari dagokionez, ez dugu uste erresonantzia magnetiko guztiak berdinak direnik, eta, hortaz, baliabideen kontsumoa ere aldatu egiten da erresonantzia motaren arabera. Beraz, erresonantzia batzuen kostua, hala nola kalkulatu dugun erresonantzia bakunen kostua, 112,47 euroko batez besteko balioaren azpitik egongo litzateke. Edonola ere, batez besteko balio hori hitzartutako tarifen azpitik dago, Alliance kasuan izan ezik.

5- Traumatologiako kontsultei dagokionez, langileei dagokien kostuaz gainera, era horretako kontsultetan egiten diren probak sartu ditugu, adituen oharren arabera, bi garestienak kontuan hartuta, izan ere, adierazten digutenez, paziente bati ez zaizkio proba guztiak egiten, eta, hortaz, ez da egokia agindu ohi diren proba guztiak batzea.

Kontsultaren kostuan ez dugu sartu erresonantziaren kontsultaren eta OTAen kostua, izan ere, hitzarmenen testuaren arabera, proba horiek ez daude sartuta kontsultarako tarifa hitzartuan, modu osagarrian fakturazten baitira.

NAFARROAKO UNIBERTSITATE KLINIKAREN ALEGAZIOEI ERANTZUNA:

1- Kalkulatutako kostua kostu estandar bat da, gaizoari emandako osasun laguntzak bere baitan hartzen dituen jarduera guztiei dagokiena, hala nola zerbitzuarekin lotura zuzena duten langileak, erabilitako materialak, emandako botikak, egindako probak eta erabilitako ekipoen amortizazioa eta mantenimendua, eta horrez gainera, zeharkako kostuen ehuneko handia –ehuneko 12tik gorakoa–.

Aztertutako prestazioen artetik, hau da, erresonantzia magnetikoa, hemodialisia, traumatologiako kontsultak eta belauneko protesien ebakuntza, azken hori da nolabaiteko aldakortasuna izan dezakeena pazienteak jarraitzen duen benetako

prozesuari dagokionez, ebakuntza horren ondorioz sor litezkeen konplikazioak direla-eta. Iruditu zaigu konplikazioen kostua kostu estimatuan sartzeak ez lukeela aldaketarik eragingo txosten honen ondorioetan, izan ere, belauneko protesia jartzeko ebakuntza egin zaien eta konplikazioak izaten dituzten pazienteen kopurua ez baita nabarmena.

2- Osasun eskaerari buruzko ziurtasunik eza, eta, hortaz, baliabideak O-NOZekin hitzartutako ustezko eskaera bati egokitzeko plangintza bat egiteko ezintasunak zentro hitzartu guztiei eragiten die, non eta ez den lehiaketa berri bat egiten, egin beharreko proben aurreikuspen bat kontuan hartzen duen erresonantzia magnetikoen esleipenerako.

3- Fiskalizazio-txostenean aztertutako osasun zerbitzuei buruzko ondorioak biltzen dira, hau da, erresonantzia magnetikoa, hemodialisia, traumatologiako kontsultak eta belauneko protesia jartzeko ebakuntza, eta baita egindako fiskalizazioan lortutako ebidentziaren ondoriozkoak ere.

4- Ez dago garbi maiatzaren 3ko 882/2010 Ebazpenean ezarritako tarifak, Nafarroako Osasun Zerbitzua osasun laguntza dohain jasotzeko eskubidea ez duten erabiltzaileentzat, kostuen azterketan oinarrituta daudenik.

Gai horri dagokionez, Ganbera honen gomendioetako bat da O-NOZek kalkulatzeko osasun prestazioen kostuak.

5- "Txostenean faltan sumatzen da hurbilpen bat egitea kostu marginalaren ikuspegitik, eta ez batez besteko kostuaren ikuspegitik" baieztapenari dagokionez, zehaztu nahi dugu kontuan hartu dugun kostua aztertutako prestazioaren unitateko kostua izan dela, eta ez batez besteko kostua; horrez gainera, Ganbera honek O-NOZi egindako gomendio bat da osasun laguntza bertako baliabideekin emateko irtenbideak aztertzea, zentro pribatuekin hitzartzearen ordez.

6- Uste osoa dugu osasun laguntza emateko zentro pribatuekiko hitzarmena dela, besteak beste, O-NOZek aztertu eta ebaluatu beharreko alderdietako bat, eta osasunaren alorreko hitzarmenentarako funts publikoen kudeaketan lortzen diren hobekuntzek Nafarroako osasun sistemaren iraunkortasunean eragingo dutela.

7- O-NOZen datuen arabera, Nafarroako Unibertsitate Klinikarekin 2009an hitzartutako gastuaren ehuneko 25 itxaron zerrenden ondoriozkoa da; baina horrek ez du esan nahi Nafarroako Unibertsitate Klinikara deribatutako gainerako ehuneko 75 O-NOZen ez dauden tratamenduei dagokionik.

SAN MIGUEL KLINIKAREN ALEGAZIOEI ERANTZUNEZ:

1-Txostena Nafarroa Bai Talde Parlamentarioaren eskaerari erantzunez egin zen, eta, hortaz, aipatutako Talde horrek adierazitako Erakunde Publikoekin hitzartutako osasun hitzarmenak fiskalizatu ziren, eta horien artean ez dago San Juan de Dios Ospitalea.

Ganbera honek 2011ko urriaren 13an txosten bat kaleratu zuen, "San Juan de Dios Ospitalearekin hitzartutako jardueraren kostuei buruzko ikerketaren azterketa" izenburuarekin, eta bertan, besteak beste, Ospitale horrekin hitzartutako osasun prestazio baten kostua aztertu zen.

2- Gure ustez, O-NOZeko zentro publikoetarako kontuan hartu ditugun kostuen eta tarifa hitzartuen arteko konparazioa datu homogeneousekin egin da.

Era horretara, erresonantzia magnetikoen kasuan, erresonantzia bakunetarako zentro publikoetan aintzat hartutako kostua proba mota horrek San Miguel Klinikaren duen tarifarekin konparatu dugu, era horretakoak baitira Klinika horretara deribatutako erresonantzia gehienak.

Belauneko protesirako ebakuntza kirurgikoen kasuan, egia da aintzat hartutako kostua kostu estandar bat dela, eta ez dituela ebakuntzaren kostuak kontuan hartzen. Egia bada ere konplikazio horien ondorioz baliabide gehiago kontsumitzen direla, egindako ebakuntzen ehuneko bost baino ez dute hartzen, Klinikak berak dionaren arabera, eta, hortaz, ez ditugu nabarmentzeko modutzat hartzen kostu estimatuan sartzeko orduan, eta horrek, gainera, ez lituzke txostenaren ondorioak aldatuko.

3- Eskerrak ematen dizkiogu San Migel Klinikak aurkeztu dizkigun kostuak kalkulatzeko sistemagatik, nahiz eta ez gatozen bat ez kostuak kalkulatzeko prozedurekin ez proposatzen diguten horien banaketarekin, datu osatu gabeetan oinarritzen direlako, ez direlako adierazgarriak eta ez zaielako aztertutako osasun prestazioaren errealitateari egokitzen.

4- Ez dago garbi maiatzaren 3ko 882/2010 Ebazpenean ezarritako tarifak, Nafarroako Osasun Zerbitzua osasun laguntza dohain jasotzeko eskubidea ez duten erabiltzaileentzat, kostuen azterketan oinarrituta daudenik.

Gai horri dagokionez, Ganbera honen gomen-dioetako bat O-NOZek kalkulatzeko osasun prestazioen kostuak kalkulatzeko.

MEDICIS SL DIAGNOSTIKO ERRADIOLOGIKO ZENTROAREN ALEGAZIOEI ERANTZUNA:

1- Berretsi egiten dugu zentro publikoetan estimatutako kostuen eta tarifa hitzartuen arteko azterketa konparatiboa baliagarria dela. Era horretara, erresonantzia magnetikoen kasuan, erresonantzia sinpleak O-NOZeko zentroetan duen kostuaren eta Medicis zentroak proba hori egiteko kobratzen duen tarifaren arteko konparazioa egin da. Azterketa honetan kontuan hartu ditugun zentro pribatuetako tarifetan, kasu guztietan, txostenaren kostua ere sartu da.

2-Eskertzen ditugu Medicis Zentroak O-NOZen kostuei buruz egindako iradokizunak, baina berretsi egiten ditugu osasun zentro publikoetan estimatutako kostuei buruz ateratako ondorioak.

3-O-NOZek esleitutako erresonantziei dagokionez, adierazten dugu esparru-hitzarmena osatuko duten enpresen hautaketa egiteko, esleipenerako prozedura bat zabalduko dela, prozedura irekiaren edo prozedura mugatuen arauen arabera, eta administrazioko kontratazioa arautzen duten konkurrentziako eta lehiako printzipioak beteko direla bermatuz.

Azkenik, txosten honen ondorioak berresten digula adierazten dugu, eta eskerrak ematen dizkiogu O-NOZeko profesional guztiei lan hau egiteko eman duten laguntzagatik, eta eskerrak eman nahi dizkiogu, halaber, beren arduragatik, ahaleginagatik eta Nafarroako gizartearen alde egiten duten lanaren profesionaltasunagatik.

Iruñean, 2011ko urriaren 20an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas